




BIZKAIAN ZEHAR KANTETAN GIDA LIBURUA



361'282

1

BIZKAIAN ZEHAR KANTETAN

GIDA LIBURUA

Iñaki Gaminde
Juan Luis Goikoetxea
Jon Gaminde
Esther Elgoibar
Jon Gaminde Elgoibar
Xabier Zalbide



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2004

Bizkaian zehar kantetan / Iñaki Gaminde ... et al. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2004
or. ; cm. + 1 CD-ROM – (Glotodidaktika-lanak ; 64)
ISBN 84-457-2121-6
1. Kanta zaharrak-Euskal Herria. 2. Euskara-Ariketa praktikoak. I. Gaminde, Iñaki. II. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. III. Bilduma
398.8(460.15/.16+447.9)
809.169(076.5)

Argitaraldia: 1.a 2004ko ekaina

Ale-kopurura: 500 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.euskadi.net

Egileak: Iñaki Gaminde
Juan Luis Goikoetxea
Jon Gaminde
Esther Elgoibar
Jon Gaminde Elgoibar
Xabier Zalbide

Fotokonposaketa: Composiciones RALI, S.A.
Particular de Costa, 8-10, 7.ª - 48010 BILBAO

Inprimaketa: Estudios Gráficos ZURE, S.A.
Carretera Lutxana-Asua, 24-A
Erandio-Goikoa (Bizkaia)

I.S.B.N.: 84-457-2121-6

Lege-gordailua: BI-1430-04

AURKIBIDEA

Sarrera	7
1. Haurtasuna ulertuz	13
2. Material honen erabilerarako proposamena	23
3. Katak	27
4. Errezitatuak	59
5. Jarduerak eta ariketak	71
6. Bibliografia	111

SARRERA

Bilduma honetan, euskaltzale edo irakasle hori, kankak eta errezeitatuak eskaintzen ditugu. Ez denak, ezta gutxiagorik ere, ezpada urteetako bilketa lanetik aukeratutako sorta eder, esanguratsu bat. Kopla gehiago dago paperetara batuta eta askoz gehiago bizi da betiko euskaldunen bihotzetan.

Diogu, zapatak erosten direla ibilian dabilizan oinetarako eta eskolan irakatsi behar-ko genukeela, ikasi baino lehen bizi izan den euskara, hots, *-rako* eta *-rentzako* bereiztu aurretik «Txinkirrinki soinua, Txinbilinerako/ zapatatxu barriak/ udabarrirako» kantatu izan duenarentzako, horrela hizkuntzaz gainera kulturako ondarea ere jaso dezagun.

Kantu eta errezeitatu hauek txiki-txikitatik erein gura ditugu haurtxoengan, eskolan ez eze etxean –guraso erdaldun nahiz euskaldunekin– kanta ditzaten. «Arre» entzuten duten filmeak «Arre-arre mandako» iradoki diezaien; «Maritxu» entzutean, «Nora zoaz eder galant hori» etor dakien gogora, zeren, berez, gizakiok, bakarrizketan goazelarik ere sarritan kantatzen dihardugula ohartzen baikara. Euskara, horrela, ez da gertatuko jakin arren bizi ez duten hizkuntza, ezpada negar zein barre egiteko erabili ohi dutena, tradizio joana arkaismo gisa ikasi gabe.

Dakar Gotzon Garatek 8.309. atsotitzean, «*Kantua entzunago, atseginago*» *dela-eta, Horatius eta Roman Jakobson bat letozke atsotitz honekin, ezen behin eta berriz entzun-ikustean ipintzen baitute atsegin estetikoaren oinarria*». Garate (1998:288).

Kantatzea, ahotsaz era askotariko doinu armodiadunak –teoriaren gainean eta pedagogiaz– eta erritmikoak sortzea da. Intsektu, anfibio eta hegaztiekin batera pertsonak ere kantari gara. Poza erakusten dugu edo eresia abestu; martxarako musikaz baliatzen gara nahiz lotarakoaz.

Berba baten, nork bere euskararen etxea eraikitzen ume-umetarik hasi behar du, zutoinak eraikizun laga barik, ezen dorrerik garaienak ikusten ez diren hormasoinetan baitu oinarria. Gerotik hurrengora uztea berandu izan liteke. Zerbaitegatik utzi du idatzirik M Sigüan-ek: : «... puede introducirse entre los 4 y los 8 años, o sea, cuando el cerebro tiene mayor plasticidad para los sonidos».

Dio Juan Mari Lekuonak, umeek ez dituztela «errezeitatzen» beren poemak; kantatu egiten dituztela; eta kantuari gehitzen diotela, gutxienez, gorputz espresio bat. «*Hala egiten du beti Gure Aita ikasten duenean eta berdin Biderketa Taula buruz finkatzen duenean. Kantua eta gorputz espresioa baliatzen ditu*». Lekuona (2002:512).

Hortik ateratzen da eman dezakegun definizioa. «*Umeen kantua da umearen solasaldi nagusia, hitzen, melodiaren eta gestuen bidez lortzen duena*». Lekuona (2002:512). Ikusten denez egiazko hiru Arte Ederren Dinamikaren sintesia, Poesiarena, Musikarena eta Dantzarena. Eta zenbat eta hobeto uztartzen dituzten andereñoek hiru elementu hauek, orduan eta garantia handiagoa dute kantuaren arrakasta lortzeko.

Mugimenduan umeen kantuak asko eskatzen badu ere, gehiago eskatzen duela esan behar da musikan. Eta musikan eskakizun handiagoa da Erritmo elementuan eta ez hainbeste Melodian. Umeari asko gustatzen zaio neurtutako mugimendua: Erritmoa. Gainerakoan, Melodia elementuan, egiazko aberastasuna dago Umeen Kantuetan. Bai euskaran eta bai erdaran. Lekuona (2002:513)

Diosku Xabier Kaltzakortak: «*Nahiz eta triki koplak ere izan, lekukoak ez daki lo kanten doinuaz kanpora beste doinurik eransten*». Kaltzakorta (1995:114). Eta begira nolakoak kantatzen zizkion haurtxoari: hunkigarrien eta gozonenetik gordinen eta gaiztoenataraino. «*Gaur zoaz ta bihar erdu, hemen daukadan papaoa baino gurago zindukedaz zu*». (Amuriza:114) Haurrari doinuaren eta ahotsaren gozotasunak ardura dio eta, jakina, eragin diezaiotela loak hartu arte.

Irakasten digu Xabier Amurizak, «*Koplaritzan sartzen denak bertsolaritzako pentsaerak atean utzi behar ditu. Kopla ez da bertso labur bat, luzeago baten erdia edo laurdena, hamar urteko haurra hogeikoaren erdia edo berrogeikoaren laurdena ez den bezala. Luze-laburrak generoa asko erabakitzen du, jakina. Kopla oso laburra izanik, ez du betelanik jasaten. Egongo dira bertsolaritzaren burutik osatuak ere, ez baitira bata bestetik hain urrun dauden generoak, baina bi puntuko edo gehienez ere hiruko kopletan, betelanerako tokirik ez dago. Hortik gorakoak ez dira koplak, bertsoak baizik, batzuetan muga bereizlea zehatzegia ez bada ere*». (Amuriza:19).

Kopletan inguruan zuten mundua kantatzen da, eguneroko bizimoduko tresnak, mendiak, pertsonak, ikusten zuten lurra eta zerua.

Kopletan bada noski arrazoiketa ere. Bizi zuten mundua islatuko da, umore puntuan beti ere, koplak dibertsioa edo azaskua janzteko baitira. Eta, agian, umore mota horretantxe dago koplaritzaren eta bertsolaritza mota baten arteko alde nagusia. Koplaritza ironian oinarritzen da, ez zirian. Ironia sarritan miseria edo egoera errukarriak karikaturizatzea izango da, baina ez ziria sartzea. Ironia onaren ezaugarria gauza asko batera iradoki ahal izatean datza. Ziri bertsoa edo eraso zuzena maite duenari koplaritza agian xaloegei, inozoegi irudituko zaio. Bi mundu dira. (Amuriza: 22).

Argumentudun koplak deritze Xabier Amurizak nolabaiteko batasuna daukaten sortei, zerbait kontatzen edo argumentu bat erakusten duten sortei, bai dantzarakoei, bai kanta gisakoei eta bai baladei eta erromantzei ere.

Koplaritza ez da arrazoi distiratsuak, ideia handiak bilatzeko tokia, egia xumeak, konstatazio sinpleak eder bihurtzen dituena baizik. Kopla askok euren xalotasun malezi gabeari zor die edertasuna. Horrek ez du esan nahi koplariak berak edo entzuleak maleziarik ez daukanik, generoa bera halakoa dela baizik.

Beraz, koplén izpirituari gagozkiola, logika diskurtsiboa baino areago bisuala daukatela esan genezake. Gainera, sekretua elementu minimoen hautaketan dago, ez da gehiagorako lekurik-eta.

Errekan dago harrie
haren ganean txorie
neskatxa kolore gorrie
mutilen engainagarrie.

Kopletan kolorea eta hotsak topatzen ditugu, hau da, ikusmena eta entzumena eta entzumenean onomatopeiak. Onomatopeiak bilatzen duena da, hitzak erabiltzea gauzen hotsa antzitzen dutela: «Kukurruku, zer behar dozu»

Koplaritzak errepika ere bere-berea du, dantzakoetan batez ere. Prozedura hau da, agian, ume kantetan aguroen nabaritzen dugun alderdia. Errepikatze mota desberdinen artean errepika berbaren oihartzuna balitz legez egitea da agerikoenetarikoa: «Atxio-motxio Perolipan:», soka-saltoan ari direla kantatzekoa.

Erriman, ostera, koplaritzak ez du burua askorik nekatzen. Narrazioa eta elkarrizketa, bestalde plano berean agertzen dira.

Sintaxiari bagagozkio, esaldiaren erraztasuna aipa daiteke, sarritan umeen hizketan aditz laguntzailea jokatu gabe uzten baita.

«Arre, arre, mandako:
bihar Tolosarako
etzi Iruñarako.
Handik zer ekarriko?
Zapata ta gerriko».

Bilduma honetan jartzen ditugun koplén artean, dantzarako koplak zaharrak dira asko:

«Erreka bazterreko»;
«Txinkirrinki soinua»;
«Aitita dala tutulun berde»;
«Andrakila mardo» eta beste asko.

Argumentudun koplak, konposizioak ere ugari dira:

«Neure maite polita»;
«Txakolin»;
«Kukua eta amilotxa»;
«Aitita dala txutxulun berde» eta beste asko.

Eske-koplak ere badira:

«Andra mondrongo»;
«Santa Ageda» eta beste batzuk.

Gabon koplak oparo kantatuak izan dira. Hemen «*Marijeseen eta Bilboko eliza batzuetako gabon-bertsoen tradizioa Bizkaiko berezitat jo daiteke*». (Amuriza: 283).

«Gabonetan oilarra»;
«Urte barri txarri belarri»;
«Erregeena» eta gainerakoak.

Errezitatuak eta koplak dakartzagu bilduma honetan, berez bereizgarriak badira ere. Hemengo errezitatuak koplartzaren izpiritutik, batez ere balada eta erromantzeen izaeratik oso hur daude. Xabier Amurizaren ustez, «*elkarrizketa neurtu gabe hau-ek, forma pixka bat emanik, erromantze bihur daitezke*. (Amuriza: 201): «Bat Batxi parrat»; «Tatana gozoa»; «San Juan bagilea» eta beste batzuk

Edozelan ere, ez da gure helburua beste teoria liburu bat merkaturatzea, ezpada daukaguna eta dakiguna didaktizatuz eskolarako material egokia atontzea.

1.

HAURTASUNA ULERTUZ

Inazio Loiolakoak esan zuen: «*Utz iezadazue haurra zazpi urteko izan arte neuk eduka dezadan; adin horretatik gora ez dio axola nork hartuko duen haren ardura*». Miller (1997: 13)¹

Guk ez ditugu lehen zazpi urteak loiolar euskaldun unibertsalaren esku utziko, baina geure arreta –batez ere– Lehen Hezkuntzan/Oinarrizko Hezkuntzan jarriko dugu, alegia, 6 urterik 11ra doan sasoiari. Konturatzen gara, edonola ere, eskolara has-teko adina aurreratzeak haurren irakasleari eskatu egiten diola ahozko berbetaren ga-rapenean parte zuzena hartzea. Haurren hezitzaileak hitz egiten ikasten ari diren ume-ekin bizi dira, hainbestean non gurasoekin baino irakasleekin luzaroago egotera iristen diren.

Amagandik banatzeak –bizitzako lehen urtean hasi zenak– jarraitu egiten du eta 6. urtean, umea harreman berrien giroan aurkitzen da, hala maisu-andereñoekin nola lagunekin. Umearen bizitzan, oraindik gora azalduko dira gurasoek –zuzenean ezin ezaguturik– susmatu baino ezin ditzaketan gertaerak.

Lehen Hezkuntzako –Hegoaldean–, Oinarrizko Hezkuntzako –Iparraldean– hasi-eretan, beraz, irten egiten du familiako mundu intimotik –0tik 3rako zentroetan lehe-nago– eta era horretan gaindituta ikusten du familian ezagutu duen hezkuntza espon-taneoko ereduak.

6 urtetik 11ra doan aldia «latentzia» denbora da, hots, umeak sentimendu eta fun-tzio korporalen gainean zeuzkan ardura haiek –batez ere bere buruarekikoak eta gu-rasokazkoak– bigarren mailara pasatzen dira eta aktibitate intelektual handiagokoak datoz haiek ordezkatzera. Haurraren arreta kanpoko mundura zuzentzen da orain.

Zazpi, zortzi eta bederatzi urte arteko adinean, umeak buruz ikasten du irakurke-ta, idazketa eta aritmetika. Baina frogatuta dago, ezen haur horiek ikasten duten guz-tia errepikatzeko gai diren arren, ez direla iristen guztiz ulertzera. Arrazoi horregatik asmatu dira irakaskuntzarako metodo berriak, zeinek haurraren ikasketa gauzekin ari-keta praktikoak egitean oinarritzen duten, eta era horretara, gertaerak eta datuak ez eze euren aplikazioa ere ikasten da.

¹ Miller andereak aipu hori San Ignazioaren ahotan jarri arren, nik neuk irakaskuntzako naizelarik hainbeste urtean entzun gabe neukanez, iturrietara jo nuen eta Gotzon Garateri itaundu: «Ez nik, ez Deustuko kideak ez dugu inoiz, ez entzun, ez irakurri, ez ikasi aipu hori. Baliteke, beste autore handi ba-tzuen kasuan bezala, San Ignaziori egozteak». Guk, beraz, kendu ez arren oharra jarri dugu.

Jokabide horretan kokatzen dugu geuk ere gure material hau, zeren 6tik 11rako epera begira prestatu dugun arren, bertoko kantak zein errexitatuak txikiagotan ere bikain ikastekoak baitira. Hala eta guzti, bilatzen dugun helburua da, buruz ikasia ulertzea eta ordenagailuaz baliatzeko klase-material hau modu praktiko-eraginkorrean erabiltzen ikastea.

Hamaikagarren urtean sartzen diren umeentzat –guk 6tik 11rako hartu dugula aztergai jakinik– programak teorikoagoak dira: gutxiago da eskuz egin eta eraikitzea, gehiago honelako gaiak ikastea: historia, geografia, zientziak eta hizkuntza. Ikasgai horiek umeari pentsatu eragiten diote, imajinarazi, arrazoiarazi eta ez esperimentatuz ikasgaraztea edo irakasgaiok gauzak eginez ikastea. Era horrexetara ohartzen dira hezitzaileak haurraren hamaika urtetik gora gertatzen den mentalitate aldaketaz.

1.2. AHOZKO BERBETAREN GARAPENA

Hizkuntzaren jabe egitea, garrantzitsua eta harrigarria izateaz gainera, oinarrizko prozesu kognitiboko parte ere bada, zeren haren hazkundeak eragina baitu beste prozesu ebolutibo batzuen garapenean: intelektualak, afektiboak, sozialak...

Hezkuntzako helburuak Komunikazioaren eta Hizkuntzaren arloan bideratu ahal izateko, behar-beharrezkoa da ezagutzea hizkuntzaren jabeakuntzako prozesu normalean diren oinarrizko zehaztasunak.

Guk curriculumeko material jakin bat eskaintzen dugu, batez ere, 6 urterik 11rako adinerako, gaitasun komunikatibo eta linguistikoen erabilera zein hazkundera gartzen lagun dezaten.

Eskolako jardueren edukia hizkuntzaren jabeakuntzako prozesu normalean oinarritu dugu, alegia, belaunaldirik belaunaldi datorkigun berbeta bizian, jakin dakigulako hizkuntzaren jabeakuntzarako testuingururik egokiena –metodorik aproposena, beraz– guraso eta adinekoekin era naturalean, interakzioan jardutea dela.

Atondu dugun materiala eskolarako egin dugu, oharturik irakasleak eta eskolak funtsezko zeregina dutela haurren trebetasun linguistikoen zein komunikatiboen garapenean.

1.3. HIZKUNTZAZ JABETZEKO PROZESUA

Haurra ama hizkuntzaz jabetu arte, fase desberdinetatik igarotzen dela jakinik, esan dezagun hizkuntzaz jabeakuntza goiztiarra oinarrizko prozesua dela, zeren horren gainean eraikitzen baitira osteko aprendizaiak guztiak. Hizkuntzaz jabetze hori haurraren garapen komunikatiboan txertatutako prozesu legez ulertu behar da eta birtarteko moduan pentsamenduaren adierazpenerako eta portaeraren arautzeko.

Hizkuntzaz jabetzeko prozesua azaltzerakoan, alde batetik, hizkuntzaren aspekturik garrantzitsuenak iragarriko ditugu eta, bestetik, burutu dugun ikerketan ume euskaldunaren prozesuan gertatzen diren fenomenorik aipagarrienak azalduko ditugu.

1.3.1. Hizkuntzako aspekturik garrantzitsuenak

Azpi-atal honetan hizkuntzan gertatzen diren aspekturik garrantzitsuenetan intonazioa, lehen berbak eta funtzionaltasuna aztertuko ditugu.

Intonazioa

Hizkuntzako aspekturik garrantzitsuenetakoa da. Berbeta bakoitzak bere intonazioa du. Gogora ditzagun txinerarena eta euskarakoa, esate baterako. Nola jokatu behar den ohartzeko, aipa dezagun, jadanik haurdunaldiko zazpigarren hilabetean umeak entzun egiten duela. Ez ditu entzungo doinuen eta hitzen zehaztasunak, baina hasita egongo da intonazioa jasotzen.

Gero, lau urterekin, ahoskera adin horretako umeen eredura doituta dago, nahiz eta doinuren baten arazoak izan, adibiderako, ll [∨]ren ahoskatzean.

Lehen hitzak

Umeak berba bat esan ahal izateko, adinekoen hizkuntza identifikatuta, errekonozituta eduki behar du. Horrez gainera, konturatu egin behar du erlazioa zein den hitzaren, esanahiaren eta testuinguruan betetzen duen funtzioarekin.

Horrexetara datoz CDko euskarrian tradizioko kantak eta errezitatuak. «Arre-arre mandako», agindua da, pertsonak abereari ematen diona, aurrera jo dezan.

Funtzionaltasuna

Hizkuntza jasotzeko bultzadan funtzionaltasuna bilakatzen da motore. Umeak funtzionaltasunez beteriko hizkuntza entzuten du: janariarekin, arroparekin..., lotuta dauden berbak, perpausa motak. Erraz-erraz ohartzen da berbetak zelan balio dion bere inguruan hobeto moldatzeko.

Geuk ere material hau prestatzean, halaxe jokatu dugu, betiko euskaldunen kantak, olgetarako, denbora pasarako, jai-uneetarako, gozamen estetikorako proposatuz.

1.4. HIZKUNTZA ETA PENTSAMENDUA

Hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko loturak sakon arakatzek behar honen mugak gainditzen dituen arren, alderik azpimarragarrienak ekarri ditugu hona.

Euskaraz bizitzeko giltza

Zerotik hiru urtera, haurrak –hizkuntza bide dela– inguruarekin komunikatzen ikasten du. Ohartu ere egin gabe, gizakikideekiko interakzioan erabiltzen ikasi duen tresna honek, pentsatzeko ere balio izango dio. Aurkikuntza hau Psikologia Ebolutiboko autore klasiko biri diegu zor, Piaget-i eta Vygotski-ri.

Piaget-ek deskubritu zuen, hiru urtetik gorako ume guztiek euren buruaz bozgoraz mintzatzen hasten zirela jolasean ziharduten bitartean.

Piaget-ek hizkera honi «egozentrikoa» deitzen zion. Haren ustez, joera hau fase egozentrikoa bukatzean amaitzen da.

Guk, Vygotski-ri jarraitzen gatzazkiola, baieztatu gura genuke, berbeta egozentriko hori desagertu baino barneratu egiten dela, hau da, umea bozgoraz pentsatzetik entzuteko premiarik gabeko pentsatzera aldatzen dela, hots, hizkuntza interiorizatu egiten dela.

Beraz, hizkuntza haurarentzat komunikatzeko ez eze pentsatzeko ere badela, jakinik, gure materialaren helburua entzunaren podesuz ikastea eta barruratzea dela, ikasgelan jardueretarako erabil dezan eta bizitza pertsonalean komunikatzeaz gain bere buruaz bakarrean kantari, hausnarketari ibil dadin.

Prozesu naturala hau da, eta honen garrantziaz jabetu beharrean aurkitzen gara. Badakigu umezaro euskalduna bizi izan duena, adinean erdaldun bilaka daitekeela edo erdalduna euskaraz bizitzera etorri. Hala ere, prozesu naturala dioguna da.

Trebetasun metalinguistikoak

Behin oinarritzko hizkuntza mailara iristen denean, hizkuntza hori bilakatzen da objektu zeinari buruz kontzientzia hartzen den. Prozesu ebolutibo honi deritza trebetasun metalinguistikoen garapena.

Guk ez dugu 13 urtera arte itxaron trebetasun metalinguistikoak agerrarazteko, ezen trebetasunen hasiera haurra lau urteko dela ere ematen baita. CDko kantak eta testu errezitatuak guztiz baliagarritzat jotzen ditugu neskak edo mutilak ohar daitezzen hizkuntzan jolas egin daitekeela, berbetak jokorako ere balio duela. Azken baten, joko linguistikoak erabat mesedegarri dira ahozko berbetaren garapenerako eta ostean datorren irakurketa-idazketaren ikasketarako.

Hizkuntza elkarrizketa gai

Hiru urterik gora, umeak joka dezake hizkuntzarekin eta mintza daiteke hizkuntzaren gainean, hots, gai da hizkuntzari buruzko elkarrizketak egiteko.

Hori gogoan dela, ardura berezia hartu dugu haurrak era praktikoan ohar daitezzen, euskara, frantsesa, ingelesa eta gazteleradunak dituztela inguruan, uste dugulako, irakasleak berbeten aurrean jarrera positiboak indartzen ahalegindu behar duela, beti ere ulertaraziz, hizkuntza bi dakizkienak bat dakienak baino jakituria, trebetasun eta kultura handiagoa duela.

1.5. HIZKUNTZAREN JABETZAN GERTATZEN DEN ORDENA

Nahiz eta beti aurkitzen garen ume bakoitzaren ama-hizkuntzak dituen karakteristiken menpe, badira edozein hizkuntzatan zenbait aspektu, orden orokor, ezagun bati jarraitzen zaizkionak.

Garrantzitsu bezain baliagarri da ezagutzea zein den orden orokorra, zeinetan ikasten diren hizkuntzaren doinuak, oinarrizko hiztegia eta egitura morfologikoak zein sintaktikoak.

Hala ere, ez da zertan itxaron, haur guztiek erritmo berean ibil eta jaso ditzaten egitura linguistiko desberdinak orden berberari jarraituta.

1.6. HAUR EUSKALDUNAREN ORDENA¹

Arestian baieztatu dugunaz gainera –zazpi hilabetetik gorako eboluzioaz– kome-ni zaigu gogora ekartzea sintetikoki bada ere, zer bideri jarraitzen zaion umea berba egiten ikasterakoan.

Sei hilabeteko denean

Haurra hasita dago hotsak doinu jakin batez iragartzera ematen eta eman ere aita-amen hizketari erantzuteko asmoz, beraiei begira-begira, berbaz balebil moduan.

Zortzi hilabeteko

Gai da begi aurrean ez duen amonari telefonoz jaramon egiteko, doinuren bat ere ahoskatuz.

Badu gaitasuna etxeko pertsona zein abereak izen edo onomatopeia bidez identifikatzeko: «Au-au» (txakurra); kokoko (oiloa); Nati (izena); amatxu; miau edo katua; kanpora! (agindua).

Bere izena entzutean ere jaramon egiten du, buruari bira emanik.

Garapenaz kontura gaitezen, baliteke haur horrek oraindik hagin –txatxur– bakarra izatea.

Hamar hilabeteko

Aitak kantatzen dionari keinu bidez erantzuna ematen daki: «Txalo pin txalo» abestean eskuz txaloak joz.

«Jan dozu?» Galderari erantzuten ere badaki hotsen baten bitartez edo «Pa» botatzen edo «agur egiten».

¹ Hemen deskribatzen dugun hizkuntzaz jabetzeko prozesua Atotz Goikoetxearen umezarotik jasotakoa da.

Hamabost hilabeteko

Azkarrenek –urte beteko direla– hasiak dira oinez ibiltzen. Orain ia hortz guztiak dituztela badakite esaten: «amama», «aita», «ura», «tia-tia» (tira-tira), «apapa» (arretxiko eramateko); baita keinuak egiten ere: txorien hegaz egitea eta abar.

Jokoetan parte hartzen ere badakite: «kukuka» (ezkutatzera) eta abar.

Hamazazpi hilabeteko

Kulunkatzen dihardutela badaki erritmoz errepikatzen: «din-dan».

-T eta -K hitzen amaierakoak argi-argi esaten ditu: «Mat» (Beñat), Aitak.

Elipsizko perpausak: «Amak ta, ta, eh!». «No nau Toi?» (Non dagoToi txakurra?)

Hogei hilabeteko

Perpaua laburrak osorik esaten ditu, eta morfologiaz jabetuz doa: «Aitana» (aitagana). «Azpin (azpian) egon da». «Tik punba!» (Natik punba egin du).

/r/ ez du ahoskatzen oraindik: «Aiaio» (Hilario), «Amama Mai» (Amama Mari), gero 27 hilabeterekin bai.

Bertsolariak entzunik doinuak tarareatzeari ekiten dio.

Noizbehinka, bakarrik dagoela ere, tarareatzeari ekiten dio.

Hogeita zazpi hilabeteko

Elkarrizketa osoak garatzen ditu aitarekin, amarekin edo nagusiekin.

Hizkuntza txantxetarako erabiltzen daki: «Zu aitaita Patxa zara». (Amari, izena Patxo delarik, gai da gaztelerazko -o/-a morfemez baliatzeko.

Ezagutzen ditu kantak: «Maritxu nora zoaz edelantori (eder galant hori)». «Amama koitadue gortati negarrez...»

Gaztelerazko berbak ere badarabiltza: «Mama, papa...».

Galdetzen ere badaki: «Non dau (dago) Alaitz?».

Aginduak ematen ditu: «Oier, itxi baketan!»

Nortasuna adierazteko gai da: «Ama, ni naz zuria! (zurea)».

Hiru urteko. Haurtzaindegian

Ekintzen deskribapena gauzatzeko trebetasuna badu: «Borobilak ebai (ebaki) arteziekaz». «Zutunik egon gara; gero jesarrita». «Etorri maitea!»

Kanta berriak bereganatu ditu: «Astoa ikusi nuen».

Erdi-erdara bat erabiltzen du panpinekin olgetan.

Hiru urte eta bost hilabeteko

Nork nor eta zer nori nork flexioak ondo bereizten ditu: «Aitatxu, zuk asko gure (gura) dostezu ?»(deustazu).

Metatesi bat edo beste egiten du: «Krangejoak».

Lau urteko

Izenorde indartzaileak erabiltzen ditu: «Nauk (Ez neuk) daukat aitatxu!»

Lotura koordinatudun perpausak sortzen ditu. Mugagabea ere bereizten du: «*Ize-na hartu eta olgetan joan gara. Bazkaldu –indabak hotz egon dira eta ez dodaz jan–. Okelia (okela) arteziekaz ebai (ebaki) dost (deust) andereño batek. Zilo (zulo) askoko oiñe(n)etakoak euki (eduki) deitu (ditu). Mahai baten kontra ein (egin) dot lo».*

Lau urteko eta lau hilabeteko

Manifestaldi jendetsuan isilik parte hartu ostean etxeratutakoan hango esloganak buruz ikasten ditu: «Nafarroa Euskadi da».

Bere izena idazten badaki.

Behin honezkero gaztelera asko daki.

Lehengusu-lehengusin txikiagoek lau urteko honengandik jasotzen dute berbeta-ko elementu asko.

Etengabeko galderen ondorioz, aurrerakada handia gauzatzen du hizkuntzan: «*Nik ez dot hil gure (gura), aitatxu!, baña (baina) holan da eta ezin da ezer ein (egin). Baña (baina) zerura zelan joaten da? Oinez? // «Ez! Piter da nire aita edo ama ala?»*

Sei urteko

Tenpusari dagokionean, iragana badarabil: «Ba, atzo baietz esan zenduen (zenuen)».

Hirugarren hizkuntza agertzen zaio ahotan: frantseseko ele ugari ikasi ditu kanpingean: «*Bonjour*», «*monsieur*», «*madame*» eta laguntxu frantsesen imitazioko erdi erara mintzatzen da: «*Atxili-futxili fu*». «*Futxi, futxi*».

Eskolan oinarrizko ingelesean ezagutza aipagarria lortu du, hamabi lerroko testuan ez du akatsik egin-eta.

1.7. ONDORIOZKO BAIIEZTAPENAK

Honaino esanekoak mukurutzeko, sekuentzia nagusien ezaugarriak bilduko ditugu jarraian.

Sekuentzia fonologikoa

Hotsen jabetzako ordenaz eta konbinazioaz dihardugunean, aipa genezake, garapen fonologikoa ildo unibertsalei jarraituz abiatzen dela, eta poliki-poliki, hizkuntza konkretuko ereduari doituz doala, izan ere haurrak entzuten duena horixe baita.

Euskararen kasuari dagokionean, guk –era sintetikoan– ikerketa jakin bat eskaini dugu gorago. Ez, gaiak arreta handiagoa merezi ez duelako, ez bada esku artean darabilgun arlorako aski delako jakitea, umea sei urteko denean gai dela euskarako edozein hots ahoskatzeko eta 6-7 urtetik gora egonkortu egiten zaiola ahoskera, ondorio legez irakurketaren ikastea zein garapena erraztuz.

Sekuentzia lexikoa

Hitzen jabekuntzako ordenaz dihardugunean, geure esperientziari so eginik baieztza daiteke, hiztegiaren ikastea bizitza osoan zehar gertatzen dela, nahiz eta hazkunderik nagusiena lehen urteetan gertatu.

Normaltzat hartzen da urte biko umeak 200/300 berba jakitea, eta Haur Hezkuntzako zikloaren amaieran milaka batzuetako hiztegiaren jabe izatea.

Behin lekto-eskriturako trebetasunak norberarenganatu direnean, bide garrantzitsua irekitzen da garapen lexikorako. Batetik irakurketa eta bestetik material idatzi desberdinen aurrean aritu beharrak haur-hiztegia aberastea dakar. Prozesu hau –aipatu bezala– bizitza osora hedatuko da, baldin irakurtzeko ohitura –edo premia– sortu bada.

Sekuentzia morfosintaktikoa

Morfemen eta arau gramatikalen jabekuntzaz dihardugunean, baieztza daiteke hizkuntza bakoitzaren karakteristikek eragin egiten dutela atal linguistiko desberdinen jabetzan. Horixe da arrazoia hizkuntza batekoa beste baterako orokortzat har ez dezagun.

Adibiderako, guraso euskaldunen alabak hamazazpigarren hilabetez ziurtasun osoz esaten ditu *Mat* eta *aitak*. Erdaldunenak, aldiz, askoz beranduago jasotzen du, esate baterako, ergatiboa, egon ere bere ama-hizkuntzan ez dagoelako halakorik. Alderantziz, generoaren konkordantzia dela eta, –ingelesekoei hain zail gertatzen zaiena, bestalde: *el/la problema*– gaztelerazko umeek lau urterako ez dute ia okerrik egiten.

2.

**MATERIAL HONEN ERABILERRAKO
PROPOSAMENA**

Arteko atalean garatuko ideien bidean oraingo honetan, CDan ematen diren materialak erabiltzeko iradokizunak batzen ditugu.

2.1. ZELAN BERREGIN INGURU NATURALA HIZKUNTZAREN JABEKUNTZARAKO?

Edozein hiztunek daki ahozko berbetaren jabekuntzako prozesua ez dela lekto-eskriurakoa bezalakoa. Ahozko berbeta familiako giroan ikasten da, metodorik gabe. Lekto-eskriura, ordea, eskolan eta metodoz baliaturik.

Gaur egun, eskolara hasteko adina aurreratu denean, haurren irakaslea ere konprometituta dago ahozko berbetaren garapenean. Umeen hezitzaileak batera bizi dira mintzatzen ikasten ari diren umeekin, sarri askotan, gurasoekin baino denbora gehiagotan egonik eurokin.

Esperientziatik dakigu hizkuntza ikasteko prozedurarik eraginkorra familiako eredia dela. Horrexegatik galdetu behar dugu beti, nolakoa den jabekuntzan gertatzen den inguru naturala eta gure materiala sortzerakoan zenbateraino bersor daitekeen ikasgelan. Inguru naturalari buruzko hausnarketa –neurri baten– arterago idatzi dugun atalean erantzun da, hots, «Hizkuntzaren Jabetzan gertatzen den ordena» deritzan. Bigarrenari erantzuteko, jokabiderik egokiena litzateke familiako eredutik ildo eta estrategiarik baliozkoenak atera eta eskolako testuingurura ekartzea.

Familiako eredian gurasoen eta seme-alaben artean interakzio linguistikoa ematen da. Etxekoak ikusle pasibo baino askoz gehiago dira umearen berbeta ikastean. Familiakoek era espontaneoan, oharkabekoan, afektibitatez beterikoan parte hartzen dute beraien umeen jabetza linguistikoko prozesuan.

2.2. FAMILIATIK ESKOLARA EKAR DAITEZKEEN ESTRATEGIAK

Ikasketa naturalean erabat garrantzitsua da jakitea zein den bidea etxetik datorrena eskolan txertatzeko. Kontuan harturik, ibilbide naturala etxean hasia dela eta umea ez dela hutsik etortzen.

Haurraren garapen mailatik abiatu

Lehen estrategia «Dakigunetik ez dakigunera» printzipioa aplikatzea da, hots, ume-berbetara hurreratzea horrela interakzioak leku izan dezan. Ostean, prozesuak berak eramango du nagusien berbete haurren garapenaz batera jasotzea.

Umearen interesetatik eta esperientzietatik abiatu

Gurasoen eta seme-alaben arteko interakzioa esanguratsua izan ohi den moduan, irakasleak ere ikasleari laguntza emateko, berau mezuaz interesa dadin lortu behar du, baita irakaslea bera ere haurrak dioenez interesatzea.

Baztergarria da etengabe haurrak errepikatzea edo haurrari errepikaraztea egiten dituen okerrak:

Errepikatzeak edo zuzenketak gehitu egin dezake umearengan porrot sententzioa edo komunikazioan parterik ez hartzea bultzatu.

Hizkuntza-eredua eskaini

Aprendizaiako testuingurua elkarrizketa da. Beraz, gomendio orokorra da haurrei berba asko egitea. Haurrarekiko hartu-eman linguistikoek egiten dute bideragarri hizkuntzaz jabetzea: euren perpausak osatuz, eurak hasitako esaldiak moldatuz, berezko hitz jokoez jolas eginik.

Eredu-erroreak erabat kendu

Horma gora bat eraiki gura denean, oinarria sendo bezain finko jarri behar da. Txikien andereño edo maisuak du beharrezko euskara oparoa, eta beti ere, errorerik edo okerrik ez duena.

2.3. BERBALIZAZIOA HIZKUNTZAKO KLASEAN

Berbalizazioa deritzagu, ideiak, sentimenduak, gertaerak berbalizatzeari, elez adierazteari, hitzez iragartzera emateari. Ikasgelan mutu dautzan mahai, liburu, arbel zein koadernoak mintzoaren sarean sartzea da berbalizazioa. Gelan dihardugula dihardugunean, egoera komunikatiboa sortu behar da, heziketa mutua gainditzeko. Horretarako, goizeko «*egunon*»etik beretik eskatu beharko dugu erantzuna, «*ez dakit*» tankerako topikoetan ezkutatzea gaitzetsiz, eta, gainera, baztertuz, jolasean, ipuin kontaketan, edo marrazketan, erabili izan den ohiko irakaskuntza sistema, zeinetan hizkuntza irakaslearen ahotik ikaslearen belarrira joaten den.

Hortaz, elkarrizketaren oinarrizko xedea haurrek hitz egin dezaten da. Hezitzailearen zeregina dinamika hori bultzatzea da, begirale izatea, eta feed-back egokia eskaintzea. Sarri askotan eutsi egin behar die umearen aurreratzeko gogoari eta itaun guztiak erantzutekoari.

Behin ahozko jardunean ariturik, euskalkia ere berez-berez azaltzen zaigu, ezen euskara idatzia bakarria bada ere, euskara mintzatuak anitz baitira. Guk jaso dugun eta orain material honetan eskaintzen dugun betiko euskaldunen ondarea ere euskalkian dator, bizkaieraz.

3.

KANTAK

Atal honetan CDan agertzen diren kanta guztiak azaltzen dira bertako orden berari jarraikirik. Kasu batzuetan partiturak ere ipini ditugu.

1. A, E, I, O, U

A, e, i, o, u
ama meriendea behar dogu
aita ganbaran dan arte
dana jan behar dogu
A, e, i, o, u
(Amoroto)

2. AITAITA DALA

Aitaita dala txutxulunberde
amama dala masustra
aita gurea tabernan da ta
amamatxori ematen
(Lekeitio)

Aitaita dela tutulunberde
amama dala masusta
Bituriatik etorri da
umea bidean galduta
oba, oba
(Zamudio)



Aitaita dala susulunberde
 amama dala masusta
 aita joan da Bituriara
 ama lepoan hartuta
 aita etorri da Bituriatik
 ama bidean galduta
 aitak topau dau ama kamaran
 gona gorria jantzita
 (Zeanuri)

Musical notation for the song 'Aitaita dala susulunberde'. It consists of three staves of music in 3/8 time, with a key signature of three flats (B-flat, E-flat, A-flat). The first staff starts with a treble clef and a 3/8 time signature. The second staff is marked with a '6' above the first measure. The third staff is marked with a '12' above the first measure. The music is written in a simple, folk-like style with eighth and quarter notes.

3. ANDRAKILA MARDO

Andrakila mardo
 txorta luzeagaz
 begi ederrakin
 ondo apaindua
 erabiliko dogu
 dingili dangoan
 zure amak erabilten
 naben moduan
 (Elantxobe)

Musical notation for the song 'Andrakila mardo'. It consists of two staves of music in 3/8 time, with a key signature of three sharps (F-sharp, C-sharp, G-sharp). The first staff starts with a treble clef and a 3/8 time signature. The second staff is marked with a '9' above the first measure. The music is written in a simple, folk-like style with eighth and quarter notes.

4. ARRE-ARRE MANDAKO

Arre-arre mandako
bihar Tolosarako
handik zer ekarriko
zapata ta gerriko
Norentzako?
Josu ta Nerentzako
(Amoroto)



Arre-arre mandako
bihar Urduñarako
handik zer ekarriko
zapatak eta garriko
(Orozko)

Arre-arre mandako
bihar Iruñarako
etzi Tolosarako
handik zer ekarriko
zapatak eta garriko
(Zeanuri)



Arre-arre borrikito
asto barrabana
okerreko lekuetatik
nora naroana?
(Gatika)



6. ASTOTXUA

Astotxua txikitxua
horren belekua
okerreko bidetik
zek ete darua
(Otxandio)



7. BAT, BI, HIRU ETA LAU

Bat, bi, hiru, lau,
bost, sei, zazpi,
zazpi, zortzi,
bederatzi,
hamar, hamaika,
hamabi, hamabi,
hamahiru, hamalau,
hamabost, hamasei,
hamazazpi, hamazortzi,
hemeretzi, hogei,
hogei, hemeretzi,
hamazortzi, hamazazpi,
hamasei, hamabost,
hamalau, hamahiru,
hamahiru, hamabi, hamaika,

hamar, bederatzi,
zortzi, zazpi, sei,
bost, lau,
hiru, bi, bat
(Amoroto)

8. EGUEN ZURI

Etxeko andra mondrongo
hik ez don asko emongo
hik emoten donanagaitik
ez jonagu poltsarik beteko
(Iurreta)



9. ERAGIOZU ESKUTXUARI


Eragiozu eskutxu hori
behin batean
eta behin beste hori
(Elantxobe)



Eragiozu eskutxuari
behin batera
ta gero bestera
(Amoroto)

10. ERREGENA

Hiru errege datoz
bai eskolapetik
mozkor-mozkor eginda
Abaskalenetik
Meltxorrek oratu ei eutsan
Gasparreri besotik
ez muturrez aurrera
eramateagaitik
(Lekeitio)



11. ERREKA BAZTERREKO

Erreka bazterreko lirio lorea
erreka bazterreko lirio lorea
ez da ederra baina
bai edertzalea
(Abadiño)



12. GABONETAN

Gabonetan oilarra
pazkoetan bildotsa
ahalegina egiteak
ez dau gutzat esku motza
hilero meza osketan
maiatzean Lagara
Elantxobeko umetxuak
ondo bizi gara
(Elantxobe)





13. HAMABI APOSTOLUAK

Hamabi apostoluak
hamaika mila aingeruak
hamarra mandamentuak
bederatzi ordenamentua
zortzirak dira zerua
zazpi sakramentua
sei argilerua sei
Jesukristoren bost Ilaga bost
lau ebajelistia lau
hiru trinidadia hiru
Erromako altara bi
gure jauna bera da bat
berak salbauko gaiozak
(Ispaster)

14. APALAZIO

Apalazio zalduna
hiru erregen eguna
Hiru erregek billatuten dau
limosnatxu bat dirura
zotzak eta paluak
Martinaren kontuak
Martinari jan ei deutzaz
hiru oilanda katuak
haren saltoak eta brinkoak
(Orozko)



Apalazio zalduna
hiru erregeen eguna
zotzak eta paluak
txoritxu biren kontura
Apalazio birimontaina
hiru intxaur eta lau gatzaina
Mari montaina!
(Nabarniz)



Apalazio zalduna
 hiru erregen eguna
 hiru erregek agindu deuskue
 limosnatxu bat behar dogula
 zotzak eta paluak
 Martin kintzen kontuak
 Martineri eroan deutsezala
 hiru oilanda katuak
 haren hezurak batu ezinda
 hark darabiltzan saltoak
 tinbilintaña-tinbilintaña
 hiru intxaur eta lau gaztaina
 (Zeanuri)

The musical score is written in 6/8 time and consists of four staves. The first staff contains the first six measures of the melody. The second staff starts at measure 7 and includes fingerings (2) above and below notes. The third staff starts at measure 13 and also includes fingerings (2) above and below notes. The fourth staff starts at measure 19 and concludes the piece with a double bar line.

15. HATOR-HATOR

Hator hator mutil etxera
gaztaina zimelak jatera
gabon gaba ospatuteko
aitaren eta amaren aurrean
ikusiko dogu aita barreka
ama be poz atseginez
eragiok mutil
aurreko tanbolin horri
gaztainak erre artean
gaztainak erre artean
txipli txapla pun
gabon gaba pozik
igaro daigun
(Zeanuri)



16. HORRA HOR GOIKO

Horra hor goiko harextitxu baten
kukuak daukaz ume bi
kukuak egin ta amilotxeak jan
hauxe be kukuaren zoritxarra zan
(Orozko)

Musical notation for the first song, 'Horra hor goiko harextitxu baten'. It consists of three staves of music in treble clef, key of D major (two sharps), and 2/4 time. The first staff starts with a treble clef, a key signature of two sharps, and a 2/4 time signature. The second staff is marked with a '6' at the beginning. The third staff is marked with an '11' at the beginning. The music is written in a simple, folk-like style with eighth and quarter notes.

Horra hor goiko harextitxu baten
kukuak umeak egin jozak aurtan
kukuak egin amilotxak jan
haxe bere kukuaren zoritxarra zan
(Ispaster)

Musical notation for the second song, 'Horra hor goiko harextitxu baten'. It consists of four staves of music in treble clef, key of D major (two sharps), and 2/4 time. The first staff starts with a treble clef, a key signature of two sharps, and a 2/4 time signature. The second staff is marked with a '9' at the beginning and has a first ending bracket labeled '1' at the end. The third staff is marked with a '17' at the beginning and has a second ending bracket labeled '2' at the end. The fourth staff is marked with a '25' at the beginning. The music is written in a simple, folk-like style with eighth and quarter notes.

Hor goiko mendiko sagastitxu baten
 kukuak egin ditu hamar ume aurten
 kukuak dabil pozez kantatzen
 habian daukazan umeen pozez
 joan habiara umerikan ez
 hasten da kukuak triste negarrez
 kukuak egin eta amilotxak jan
 haxe be kukuaren zoritxarra zan
 kukuak dabil triste negarrez
 noz topatzen dauan amilotx horrek
 urteten baldin badozu zulo horretatik
 ez haiz apartauko heriotzatic
 (Lekeitio)



17. KANDELARIO

Kandelario lario
hatxari ura dario
erroteari uruna
haxe da guk behar doguna
(Zeanuri)



18. KUKURRUKU

Kukurruku zer behar dozu
arrautza bi eta koipetsu
(Otxandio)



19. LEHENENGOTXU HORI

Lehenengotxu hori
punta bihotz hori
beste guztien artean
txikia dok hori
Bigarrentxu hori
punta bihotz hori
beste guztien artean
nagia dok hori
Hirugarrentxu hori
punta bihotz hori
beste guztien artean
luzea dok hori
Laugarrentxu hori
punta bihotz hori
beste guztien artean

sendoa dok hori
Bosgarrentxu hori
punta bihotz hori
beste guztien artean
lodia dok hori
(Orozko)

Musical notation for the song 'sendoa dok hori'. It consists of three staves of music in treble clef, key of D major (two sharps), and 2/4 time signature. The first staff contains measures 1-6. The second staff starts at measure 7 and contains measures 7-12. The third staff starts at measure 13 and contains measures 13-16, ending with a double bar line and a box containing the numbers '1, 2, 3, 4'.

20. LOA-LOA

Loa-loa santa loa
zeru altuko Jaungoikoa
emoiozu umetxu honeri
ordu t'erdiko loa
(Elantxobe)

Musical notation for the song 'Loa-loa'. It consists of two staves of music in treble clef, key of D major (two sharps), and 3/4 time signature. The first staff contains measures 1-8. The second staff starts at measure 9 and contains measures 9-16, ending with a double bar line.

21. LOGURA NAZ

Logura naz eta lo egingo neuke
baneuka oherako laguna
daukat oherako laguna baina
agura lepo makurra
(Ispaster)

22. LOTXU ENGAINADORE

Lotxu engainadore
faltso traidorea
arren engaina eizu ba
umea geurea
arren engaina eizu ba
umea geurea
(Zeanuri)



23. OBABATXUA (I)

Obabatxua lo ta lo
zuk orain eta nik gero
zeuk gura dozun
orduren baten
biok egingo dogu
lo ta lo
(Zeanuri)



Obabatxua lo eta lo
zeuk orain eta neuk gero
zeuk gura dozun
orduren baten
biok egingo dogu
lo eta lo
(Orozko)

24. OBABATXUA (II)

Abubatxua lo tiritaña
ez egin lorik basoan
otsoren batek jan ez zaitez
bildostxua zarelakoan
(Lekeitio)

6

11

Ababatxua lo tirintaña
ez egin lorik basoan
otso gaiztoak jan ez zaiezan
bildotsa zarealakoan
(Ispaster)

25. OBABATXU TXINGORRINGORRI

Obabatxua txingorringorri
ez egin lorik basoan
azagariak jango zaitu ba
oiloa zaralakoan
azagariak jango zaitu ba
oiloa zaralakoan
(Zeanuri)



26. OBA-OBA

Oba-oba
loaren gozoa
Santa Katalineko
dendari gozoa
zakua sartu eta
zakuak zuloa
handik agiri dau ta
kadera motxoia
oba-oba
(Zamudio)



27. OINA-OINA

Oina oina
Txiri txiri
Aita legez
Ama legez
(Zeanuri)

28. PERU ZAPATARIA

Din dan
nor hil da?
Txomin zapaterua
Zer egin dau?
Txizalupean koipetsu
manta zaharrak garbitu
Txizaluganean sikatu
(Orozko)



Din dan
nor hil da?
Peru zapataria
Zer egin dau pekatu?
Auzoko txakurra urkatu
(Zamudio)



Din dan
 nor hil da?
 Txomin zapaterua
 Zer egin dau pekatu?
 Auzoko txakurra urkatu
 Hori baino ez bada
 beharko jako parkatu
 (Zeanuri)



Tirrin-tarran
 Nor hil da?
 Peru zapaterua
 Zer egin dau?
 Auzoko txakurra urkatu
 eta tellatuan sikatu
 (Galdakao)



Din dan
 nor hil da?
 Peru zapataria
 Zer egin dau pekatu?
 Auzoko txakurra urkatu
 teila ganean sikatu
 haren emazte koitaduak
 hamar madari pagatu
 (Elantxobe)

Din-dan
 Nor hil da?
 Peru zapataria?
 Zer egin dau pekatu?
 Auzoko txakurra urkatu
 Hori ez dala pekatu
 Hori bai dala pekatu
 (Gatika)



29. SANTA AGEDA

Siziliako huritxu baten
 jaio zan Santa Ageda
 txiki-txikia izan zanetik
 gazte garbi eta zuzena
 edertadera heldu zanean
 ez zan harrotu gugaitik
 Kinziano enperadoreak
 maite eban Santa Ageda
 ikusi nahirik bere aurrean
 ekarri eban etxera
 gaiztakeria hau entzunik
 Agedak dino bakarrik
 nik agurtzen dodan jauna baino
 ez dot maitatzen besterik
 gero kartzelan egon zanean
 zan mirari bat handia
 San Pedrok berak osatu eban
 gorputz odolez betea
 (Orozko)



Abestu daigun Agate deuna
bihar da Deuna Agate
etxe honetan zorion hutsa
betiko euko al dabe
(Elantxobe)



Etxe honetako ugazabak
urregorritz dau bizarra
urregorritz dau bizarra eta
zidar labrauzko espalda
(Elantxobe)



Emongo baizu emoizu
bestela ezetz esaizu
ate honetara hotzak hiltzera
inok ez gaitu bialdu
(Elantxobe)



Bedeinkatia izan dedila
 etxe honetako jentia
 pobre eta humilde dabilzanentzat
 badute borondatia
 Santa Martiri maitia
 dago errukiz betia
 jaun zerukuak emon daiuela
 osasuna eta bakia
 (Ubidea)



30. TXAKOLIN

Txakolin, txakolin
 txakolinak on egin
 txakolinak emongo deutsa
 Bernardari zer egin
 txakolin
 txakolinek on egin
 (Zeanuri)



31. TXAKUR HANDI

Txakur handi txaketa
txakur handiena
txakur handi txaketa
buelta morena
(Iurreta)



32. TXALO PIN TXALO

Txalo pin txalo
txalo pin txalo
katutxua mizpiruaren
ganean dago
badago bego
badago bego
zapatatxu barriari
begira dago
(Abadiño)



Txalo, txalo pin txalo
katutxua mizpiruaren
ganean dago
dago eta bego
zapatatxu barrien
begira dago,
dago
(Zeanuri)

Txalo pin txalo
txalo pin txalo
katutxua mizpiru
ganean dago
badago bego
badago bego
zapatatxu barriari
begira dago
txalo pin txalo
(Dima)

Txalo, txalo pin txalo
katutxua mizpiruaren
ganean dago
dago bego
zapatatxu barrien
begira dago
(Zamudio)



Txalo pin txalo
txalo eta txalo
katutxua mizpilaren
ganean dago
badago bego
zapatatxu barriari
begira dago
(Ispaster)

33. TXIKITXUA ZARA

Txikitxua zara baina
haziko zara ondino
hazten ez bazara be
ez zaitudala itxiko
(Amoroto)

34. TXIKITXU POLIT HORI

Txikitxu polit hori
zelan zara bizi?
joan dan aspaldian
ez zaitut ikusi
(Abadiño)



35. TXINKIRRINKI SOINUA

Txinkirrinki soinua
txinbilinerako
zapatatxu barriak
udabarrirako
(Fika)



36. UMEA NEGARREZ

Gure umea negarrez dago
ama emoiozu titia
aita faltsoa tabernan dago
ordizar jokolaria
aita faltsoa tabernan dago
ordizar jokolaria
(Zeanuri)

37. URTEBARRI

Urtebarri txarri belarri
daukanak ez daukanari
nik ez daukat eta niri
hiru intxaurtxu lau gaztaina
Marimontaina
(Orozko)

Urtebarri barri txarri belarri
daukanak ez daukanari
intxaurtxu bi Marimontaina
agureak dauka popan berakatza
atsoak dauka uzkar usaina
(Lekeitio)

Urtebarri barri, natortzu atera
zorionak asko zeueri emotera
urte zaharra joan da
heldu da barria
zaharraren aldean guztiz ugaria
poztu zaitetz bada etxeko andrea
emon egidazu ugari saria
(Atsoak dauka popan usaina
agureak dauka popan berakatza)
(Elantxobe)

Urtebarri, barri-barri
daukanak ez daukanari
ez deutsanak emoten
txarri belarri
(Durango)

Urtebarri ekarri
txarri belarri
daukanak ez daukanari
neuk ez daukat eta neuri
hiru intxaurtxu lau gaztaina
Marimontaina
atsoak dauka uzkar usaina
(Aulestia)

Urtebarri
txarri belarri
daukanak ez daukanari
neuk ez daukat eta niri
ezpabere mailutxu bategaz
kriski-krauski haginak hausi
(Gatika)

38. ZERUAN ZE BARRI

Zeruan ze barri?
zeruan barri onak
orain eta beti
(Amoroto)



Lo lo aingerua
zeruan ze barri?
zeruan barri onak
orain eta beti
(Ispaster)

4.

ERREZITATUAK

Atal honetan errezitatutzat har ditzakegun testuak batzen ditugu. Euron artean daude, ume txikerrekin egiten diren olgetak, bertsoxoak, igarkizunak edo zotz egiteko formulak.

1. ARRAUTZEN OLGETEA

Honek habia topau
honek arrautza ekarri
honek gatza bota
honek probau
eta honek totolo honek dana jan
(Zeanuri)

Honek arrautzatxua egin
honek altxau
honek prestau
honek probau
eta honek tragau
(Fruiz)

Honek arrautzatxua egin
honek topau
honek prestau
honek probau
eta honek dana jan, jan, jan, jan
(Gatika)

Olgeta honetan umearen atzamarrak hartzen dira eta txikerretik erkororaino bakoitzeko ekintza bat aipatzen da. Azkena, «potoloak» edo «totoloak» dena jaten dela adierazten da.

2. ARTAZIAK

Puntan punta bi
eperdian zulo bi
artaziak dira
eta ezetz igarri
(Fruiz)

Puntan punta bi
eperdian zulo bi
eta artaziak dira
eta ezin igarri
(Fika)

Puntan punta bi
atzean zulo bi
artaziak dira
ezetz igarri
(Gatika)

3. ATXIA-MITXIA

Atxia motxia
perolipan
sirri-sarra
kortatxu
pera beteko
zulotxu
(Abadiño)

Atxia mutxia
bestela kutxian
sirrin sarran
dominipan
zure semea errotan
errota txikian
nabilenean
klin-klan
Derio señor
hamen etxean
inor ez dago
txau!
(Iurreta)

Atxia-mitxia
perolipan
neure semea errotan
joan nintzan errotara
topau neban erbi bat
jaurti neuntsan harri bat
zelemina kanpa
zelemina kanpa
gari gorri-gorri bat!
(Zeanuri)

Atxi-mitxi
kumunipan
nire semeak errotan
joan nintzan errotara
topau neban erbi bat
jaurti neuntsan harri bat
atara neuntsan begi bat
zelemina kanpa
zelemina kanpa
gari buru buru handi bat
(nor dozu nobioa?)
(Zamudio)

Txitxia-mitxia
kinpulipan
nire semea errotan
errotatxuan urunik ez
joan joan bide batez
topau neban erbi bat
tiratu neuntsan harri bat
kendu neuntsan begi bat
ipini neuntsan barri bat
zelemina kanpa
zelemina kanpa
gari buru handi bat
(Fruiz)

Atxia-motxia koloripan
zure semea errotan
errotara joan nintzan
topau neban erbi bat
atara neuntsan begi bat
begi gorri txiki-txiki bat
(Durango)

Atxio-mitxio
Don zapatari
txindorran kakia
lau mandatari
joan joan pista basora
handik etorri aitari eta amari
eskuak garbitu eta anda lijero
(Gatika)

4. BAT PATXI PARRAT

Bat, bat, Batxi parrat
Bi, bi, Batxi eperdi
Hiru, hiru, hiru Batxi diru
Lau, lau, sardina makalau
Bost, bost, gure katuak porros-porros
Sei, sei, nik ezin hazi nei
(Fruiz)

Bat Matxin parrat
Bi Matxin eperdi
Hiru kolko bete diru
Lau saguzarrak jango al dau
Bost oilo kataplost
Sei korta bete behi
Hamar gure katua marmar
(Ispaster)

Bat Matxin parrat
Bi Matxin ipurdi
Hiru kolko bete diru
Lau sardina makalau
Bost kasketean kos
Sei korta bete behi
Zazpi korta bete azpi
Zortzi korta bete, e, ez dakit zer
Bederatzi jo eta eratsi
Hamar katua marmar
Hamaika lukainka
Hamabi altzo bete madari
(Amoroto)

5. ERRATZA

Basoan jaio
basoan hazi
etxera etorri
eta dantzan ikasi
(Gatika)

6. HAU ZANKO

Hau zankoa
hau gure loa
hau Bitor da
hau sendoa
(Zeanuri)

Ai zanko, ai manko
arto beterik joan eta
gariz beterik baletor
torros tos tos
tos tos!
(Zamduio)

Ume txikitxuaren hankak nagusiak ahuma eginda, errezitatuaren erritmoaren araberaren egiten da.

7. HONEK ETA HONEK

Honek eta honek eta
honek eta honek
bat estudiau eutsen honi
honek esan zion honi
dominatzailea hau eta hau
dominatzailea hau eta hau
honeexok dira hogeita lau
(Abadiño)

8. INUZENTEENA

Inuzente txakilante
txakurraren buztana
tente bolante
(Abadiño)

9. KATALAMIXON

Katalamixon
Non izan?
Kartzelan
Zer ekarri?
Gaztaia eta ogia
Non itxi?
Armario ganean
Nok jan?
Katuak eta txakurrak
kittu!
(Abadiño)

Katalamixon
Nondik etorri?
Gaztelutik
Zer ekarri?
Gaztai eta ogia
Non itxi?
Arasan
Txakurrak eta katuak jan
Txau!
(Iurreta)

10. MARITXU TAILETAKO

Maritxu tailetako
gona gorriduna
eutsi hagin zaharra
eta ekarrizu barria
(Loiu)

Marigorri tailetako
gona gorriduna
eutsi hagin zaharra
eta ekarrizu barria
(Zamudio)

Maria teilatuko
gona gorria
eutsi hagin zaharra
eta ekarri barria
(Larrabetzu)

Maritxu tailetukoa
gona gorriduna
eutsi hagin zaharra
eta ekarri barria
(Fruiz)

Maritxu aiba
hagin zaharra
eta emon barria
(Abadiño)

Maritxu tailetako
gona gorriduna
eutsi hagin zaharra
eta ekarrizu barria
(Gatika)

Errezitatu hau –batzuetan musikarekin egin– lehen hortz-haginak jausten direnean erabiltzen da. Goiko hagina sasiartera eta behekoa teilatura jaurtita (leku batzuetan biak teilatura jaurtitzen dira) esaten da. Maritxu tailetakoa marigorringo intsektuaren izena da Uribe Itsasaldeko herrietan.

11. NESKATO PISPOTA

Neskato pispota
buruan dozu kopeta
zure soineko jantziak
hiru dozena kortxeta
(Gatika)

12. SAGUZARRA

Saguzarra
eutsi hagin zaharra
ekarrizu barria
(Orozko)

Arratia eta Hego Uribeko herrietan haginak jausten direnean, errezitatu hau erabiltzen da. Maritxu tailetakoari eskatu beharrean saguzarrari eskatzen zaio hagin berria ekartzeko.

13. SAN JUAN

San Juan bagilean
denpora ederrean
zapoak eta sugeak erre
artoak eta gariak
kaxan ondo gorde
(Orozko)

San juan bagilea
denpora ederrean
artoak eta gariak gorde
subeak eta pestekeriak erre
txuntxurru narrupolaine
Andres San Andres
gure soloan zaporik be ez
sugerik be ez
badago be
erre beitez
(Dima)

San Juan San Juan gabiletako
artoak eta gariak gordeteko
zapoak eta sugeak erretoko
(Gatika)

14. TUTULUMIO

Tutulumio
Nondik etorri?
Arabatik
Zer ekarri?
Ogia eta gaztaia
Non dozuz babak?
Txakurrak eta katuak jan
zapi, zapi, zapi, zapi!
(Zeanuri)

15. TATANA GOZOA

Tatana gozoa
Zer jan dozu gaur?
Txitxi eta papa
Niri zergaitik emon ez?
Aitak eta amak itxi ez
zapi, zapi!
(Zamudio)

Tatana «laztana» bera da. Gatican, esate baterako, umeei «tatantxu egin» esaten zaie laztan egiteko.

16. TXOMIN-TXOMIN

Txomin-Txomin alamanera
zopak jan eta laba ganera
labeak puntea zorrotza
Txominen ahora korotza
(Abadiño)

17. UNDO

Undo taparran panpero
Undo sosio tarranplan
(Elantxobe)

Soka dantzan erabiltzen da sokaren erritmoari jarraituta.

18. UNIN DOLIN

Unin dolin pospolin
tres y cuatro delantín
aquí se guarda isipispitipot
hor ez badok hemen dok
(Fruiz)

Olegetetan jakiteko nor den «lo», «azpi», «beherako» edo «zigortua» honen moduko zotz egiteko formulak erabiltzen dira.

5.

JARDUERAK ETA ARIKETAK

Atal honetan, kantuak eta errexitatuak lantzeko CD-an sartu ditugun ariketa guztiak aurkezten ditugu. Ariketa hauek erabil daitezkeen arteko batzuk dira eta iradokizuntzat hartu beharko lirateke, zeren, ez baitugu esan gura aukera gehiagorik ez dagoenik edo denak egin behar direnik. Irakasleek edo gurasoek ikusi beharko dute, unean-unean, zeintzuk diren egokienak, umeen adinagatik, garapen mailagatik, musika ezagupideengatik edo norberaren aukera estetikoengatik.

Ariketak hiru multzo nagusitan banatuta daude. Lehen multzoan adinaren arabera sailkatu ditugunak ematen ditugu. Bigarren multzoan ariketak gaika ematen ditugu; ariketa hauetariko batzuk ez ditugu aurreko sailean sartu, hala nola aditz ariketak eta idazketa lantzeko mota batzuk. Azkenik, hirugarren multzoan, «erritmoa» izenpean, musika, erritmoa eta errexitatu edo kantuak eurak lantzeko prestatu ditugun batzuk paratu ditugu.

5.1. ADINAREN ARABERA

Ikasleen adinaren arabera prestatu ditugun ariketak bost multzotan banatuta agertzen dira; bost, sei, zortzi, hamar eta hamaika urtekoentzat.

5.1.1. Bost urterako

A, E, I, O, U			
Gaia	Irakurketa	Jarduera	Abezedarioa ikasi leiteke kantaren bitartez, abezedarioko letrak bosnaka taldekatuta.
			A, be, ze, de, e/ efe, ge, hatxe, i, iota/ ka, ele, eme, ene, eñe/ o, pe, ku, erre, ese/ te, u, uve, uve bikoitza, ixa/ i grekoa, zeta.

Ariketa aproposa da fonema guztiez jabetzeko. Berton bokalak baino ez ditu lantzen, baina doinu bera erabilita bosnaka ahoska dezake alfabeto guztia: A, Be, Ze, De, E, eta ostean beste bost. Efe, Ge, Atxe, I, Jota eta abar.

Ezin ahaztuko dugu adin honetan badirela oztopo dituzten fonemak, erdaldun familiarakoentzat ergatiboak: Nik, eta gaur eguneko gehientzat Oiloa.

ARRE-ARRE MANDAKO			
Gaia	Idazketa	Jarduera	Ikasleak hutsunea izen birekin bete behar du. Esate baterako, <i>Josu eta Nerentzako</i> :
Arre-arre mandako bihar Tolosarako handik zer ekarriko zapata ta gerriko Norentzako?			

Bost urteko direnean, umerik gehienek egin dute ahalegina euren izena eta laguntxoena idazten, hau da, idatzirako interesa piztu zaie.

Ariketa honetan nork bere izena eta adiskideren batena esan behar dutenez, idatzi ere egin dezakete. Jakina, beti da lehenago kanta buruz ikastea. Bestalde, izena garrantzitsua da, zeozelan esateko pertsonaren identitatea erakusten baitu.

KUKURRUKU			
Gaia	Irakurketa	Jarduera	Ikusi zenbat u letra dagozan kanta honetan eta bete hutsuneak.
- u - u - u - u zer behar - - - u - - - u - - bi eta - - - u.			

Laburrean abesti polita intonazioa ikasteko, entzuna eta idatzia bereizteko eta fonemak lantzeko.

ASTOTXOA			
Gaia	Gorputz heziketa	Jarduera	Hartu altzoan, magalean -baina berna gainean-panpina eta bideoko andrearen erara egin mugimenduak.

Jarduera honetan haurrak erabili egin behar du gorputza bideoko andrearen antzera, beti ere erritmoari eutsiz.

Ez dihardu gutxitan umeak bera zaldi dela –astoa berreskuratu beharrekoa da– eta zaldiaren joan-etorriak antzeztuz jokutzen, lauazkan nahiz pausuan ibiliz. Azken baten, jolasean erabat murgiltzeaz gainera, nagusien antzerako ekintzak eginez eta agintea erakutsiz.

TXAKUR HANDI			
Gaia	Gorputz heziketa	Jarduera	Hemen bere, hartu altzoan ikasgelako laguntxo bat edo panpina eta bideoko amamaren araberrako mugimenduak egin.

Jarduera hau oso egokia gerta liteke panpina altzoan, magalean harturik gauzatze-ko. Oraindik ez dira iritsi arauetan oinarritutako jokoetan parte hartzeko adinera. Gu-rago dute paperak –pertsonei zereginak– errepresentatzea, batez ere, telebistako programarik estimatuenetan oinarrituta: ninja dordokak; Batman eta beste batzuk.

Bost urteko direla, oraindik euren trebetasun motoreak hobetzeko prozesuan di-hardute, eta bete-betean murgildu ohi dira jarduera fisikoan.

TXALO PIN TXALO			
Gaia	Gorputz heziketa	Jarduera	Irakasleak galdetu eta ikasleak erantzungo du.
Zeri begira dago katutxoa?			

Jarduera honetan txaloak jotzen direla, bakarkako nahiz taldekako erritmoa lan daiteke.

Baserrietako abereak nekazariarentzat «Gure hurrengoak» dira, katutxua «gure hurrekoa».

Katua kutuna da, baina ezustekoa ere bai. Katuak saga dakarkigu gogora eta ipuin asko eta ez esaera gutxi: Gotzon Garatek dioskunez: «Saguen atzetik katua, nagsiaren atzetik txakurra».

ERREGENA			
Gaia	Ospakizunak	Jarduera	Irakasleak galdetu eta ikasleak erantzun:
Zer egin eutsan Meltxorrek Gasparreni?			

Ohiturak ohitura, Olentzarorekin batera –Euskal Herriak Europan duen kokaguneagatik– erregeak ere urteko ospakizunen gurgilean agertuko dira, Papa Noellen edo Santa Clausen inguruan direla. Eskolaren betekizuna, geuretik abiatu gero gainontzeko-ak ere ezagutzea izango da.

Erregetako abesti honi beste antzerako batzuk aldamenean jartzea ere egokia da.

5.1.2. Sei urtekoentzat

Sei urteko haurren gainean baieztatuko dugun izaera, portaera asko, guztiz aplikagarriak dira bost urtekoentzat zein zazpikoentzat, ezen haur guztiek ez baitituzte in-teres berberak, ez eta jarrerak ere. Ondorioz, ez dira denak abiadura berean garatzen.

ERAGIOZU ESKUTXUARI			
Gaia	Gorputz heziketa	Jarduera	Lehenengo, bideoa jarri eta eskuei eragin erritmoaren arabera, lehenik batari, ostean, besteari. Bigarren, doinua jarri eta ikasleak hamar hartzak erabiliz, silabak banan-banan markatzen direla erotan behar du erritmoa.

Jarduera honetan kanta ikasi eta eskutxoaz baliatzen ikasten da. Gorputz heziketan atal hau ederto erabiltzea lortu ohi dute. Elantxobeko bertsioa eta Amоротokoa bata besteagaz alderaturik ikastea komeni da.

Identitate sentimendua behar bestean eurenganatu ez duten hurrek, behar-beharrezko dute gurasoen, irakasleen laguntza, denari mugak jartzeko, direla arauak nahiz errimak.

TXINKIRRINKI SOINUA			
Gaia	Gorputz heziketa	Jarduera	Irakasleak lerro inpareak kantatu eta ikasleak pareak edo ikasle batek inpareak eta beste batek pareak, elkarrizketa erara.
Txinkirrinki soinua			
<hr/> zapatatxu barriak <hr/>			

Oinetakoak lotzea, janzteia, edo soingainekoa norberak bakarrik ipintzea, nagusi-en laguntza barik, sei urtekoaren independentziak eskatzen duen ordaina da. Oraindik gora, gurasoek-eta konpontzen zizkioten eguneroko beharrianak berak egin behar ditu, hauxe da-eta gurasoekiko harremanetan gertatzen zaion aldaketarik handiena.

Kanta ikasi ostean, bideoan azaltzen den erara erabil daiteke umea, gora eta behe-
ra edo umeak erabil dezake panpina; jarduera aproposa da, bestalde, zapatak lotzeari ekiteko ere.

ASTO BARRABANA			
Gaia	Zenbakiak	Jarduera	Esan egizu zertzuk egiten daben multzoa. Zuk bi gehiago ipini:
Bikoteak: esku bi; arto-uruna; _____;			
Hirukoteak: hiru erregeak; triangelua; _____;			
Laukoteak: astoak lau hanka; lau koadroa; _____;			
Boskoteak: larrosatxoak bost orri; _____;			

Zenbaketarako jarduera egokiak atera daitezke abesti honetatik. Sei urteko direnean, haurrek uler dezakete zenbakiak objektu multzoa errepresentatzen dutela. Baliteke bosta eta hamarra ulerterrazak gertatzea, eskuko hatzak ere horrenbeste direlako. Hemen joera naturalari jarraituta ikas ditzakegu: Bikoteak: beso bi, esku bi, belarri bi; Hirukoteak: Hiru errege; hiru Jainko...; Laukoteak: Astoak lau hanka; laukiak lau alde, eta abar.

HATOR-HATOR			
Gaia	Ospakizunak	Jarduera	Ikasleak kantatu ahala antzezteko, batez ere, <i>eragiok mutil dinoanean eta txipli-txapla pun</i> kantatzen danean.

Gau luzeetako ospakizunetan sartzen dugu «Hator, hator» abestia. Ederto dator kanta hau danborrari eragiteko ariketarako nahiz erritmoaren arabera «txipli-txapla pun» antzezteko.

Irakasteko metodoak oso aldatuta daude. Gaurko eskolan, adin honetako haurrek gauzak eginez ikasten dute: pintatuz, ebakiz, irudiak, barrak eta ontziak erabilita kalkulatz.

5.1.3. Zortzi urtekoentzat.

ZERUAN ZE BARRI			
Gaia		Jarduera	Bada euskeraz atsotitz bat galdera eta erantzuna dituen. Hemen dozu erantzuna, zuk itauna ipini ikasi dozun koplatak atarata:
_____?			
Zaharrak barri.			

Jardueran haurrak adin honetan duen itauntzeko premiarako formula egoki bat eskaintzen da. Gogorarazi beharreko berezitasuna da, umeari mozolokeriengatik barre egitea gustatzen zaion arren, gustatzen zaiola gai serioez mintza dakizkion ere.

Koplaritzan narrazioa eta elkarrizketak plano berean eskaintzen dira, batetik bestera zubirik ipini barik pasatzen da. «Zeruan ze barri» koplan elkarrizketa dugu «Maritxu nora zoaz» kantan legez.

ZERUAN ZE BARRI			
Gaia	Eremu semantikoak	Jarduera	Bada euskeraz atsotitz bat galdera eta erantzuna dituen. Hemen dozu erantzuna, zuk itauna ipini ikasi dozun koplatik atarata:
_____?			
Zaharrak barri.			

ANDRAKILA MARDO			
Gaia	Gorputz heziketa	Jarduera	Lehenengo txinboaren/kulunkaren erritmoan erabili panpina besartean eta gero, hutsuneak bete.
Mardoa, _____,			
_____, ondo apaindua.			

Ariketa da, panpina eskuetan, erritmoa gorderik egitekoa. Ezin ahantziko dugu esperientzia positiboak grabatuta geratzen direla geure izaeraren barruan. Semeak edo alabak, amak edo aitak zer egiten duten arretaz begiratu eta kopiatu egiten dute.

OBABATXUA II			
Gaia	Eremu semantikoak	Jarduera	Ispasterreko amamak zergaitik dino:
«Ez egin lorik basoan»?			

OBABATXU TXINGORRINGO			
Gaia	Eremu semantikoak	Jarduera	Zeanuriko amamak dino: «azagariak jango zaitu», baina
Zer zarelakoan?			

Testu oparoak dira ikasgelarako –nahiz gurasoentzako–. Eskaintzen direnetarik bat ikas daiteke –Ispasterrekoa esate baterako– eta gainontzekoakaz erkatu, bataren eta bestearen arteko desberdintasunekin batera zer duten oinarrian berdina ikusteko.

Horrez gainera, loturetarako bidea eskaintzen du: Txano Gorritxoren ipuinarekin; basoak ematen duen itzaltasunarekin, basajaunarekin eta abar.

Zortzi urtekoek ahalegin handia egiten dute ondo bereiztu eta definitzeko zer den fantasia eta zer errealitatea.

TXIKITXU POLIT HORI

Gaia	Idazketa	Jarduera	Jaso eskuak Mari Jaiaren moduan eta kontatu silabak atzamarrak erabilita:
Txi-ki-txu po-lit ho-ri _____ _____ _____			
Orain kantatu letra berbera «Maritxu nora zoaz koplaren musikaz».			

Ariketa egokia, hatzak erabilirik koplako silabak kontatzen saia daitezen nahiz koplaren egituraz jabe daitezen.

ERREKA BAZTERREKO

Gaia	Idazketa	Jarduera	Azpian daukazun laukian, ezkerreko goiko koplaz zelan kantatu azpian ipintzen da. Zuk idatziz «Erreka bazterreko» koplak hau eskuinean goian eta ipini azpian zelan kantatu daitekeen errepika eta guzti, ezkerrekoaren modura.
Ederrak bi balio		Erreka bazterreko	
Kopla	Ederrak bi balio onak hiru ta lau galanta izateak asko balio dau.	Kopla	
Kopla kantatua errepikarekin	Ederrak bi balio onak hiru ta lau ederrak bi balio onak hiru ta lau galanta izateak asko balio dau oi ai ene asko balio dau ederrak bi balio onak hiru ta lau.	Kopla kantatua errepikarekin	

Olerkiaren tasuna zertan datzan adierazteko aukerakoa. Aliterazioa ere bikain jorrra daiteke.

Kopla zahar hau «Arin-arin»a dantzatzeko erabiltzen dela jakiteaz gain, ikasi ere egin daiteke dantza hori.

EGUEN ZURI			
Gaia	<i>Generoa</i>	Jarduera	Jo hiztegiara, begiratu zer den mondrongo edo mondongo eta hemen idatzi.
Mondrongo: _____			

Neskak neska direla eta mutilak mutil direla da zortzi urterekin egindako aurki-kuntzetarik bat. Bataren eta bestearen izaera desberdintasunak aurkitu baino lehen, nork bere identitateaz egon behar du seguru.

Kantak ederto baten irakasten digu aditzak dituen maskulinorako eta femeninorako baliabideak –alegia hikako tratamendua– gizonetzkoen eta andrazkoen arteko harremanetarako.

LOA-LOA/OBABATXUA (I)			
Gaia	<i>Jolasak-Olgetak</i>	Jarduera	Obabatxua ikasi eta erantzun:
Noz egingo dau lo umetxuak eta noz amamak? _____			

Panpinekin jokoetan ari direnean erabil daitekeen doinua edo etxean hurrek aitari eta amari irakastekoa, lotarakoan batera kanta dezaten. Antzera balio dezake panpinak lotan jartzeko-eta.

«Zuk eta biok» esamoldea irakasteko era eskaintzen du kantak.

OBA-OBA			
Gaia	<i>Jolasak-Olgetak</i>	Jarduera	Kanta hau entzunik, idatzi antz-antzeko izenburua daukan euskal liburu famatu baten izena. Idazlea Bernardo Atxaga da:

Oba-oba hasiera eta amaierakoak biziarazten dio umetxo bati, adinekooi Birgiliok sujeri diezagukeen baino gehiago. (Juan Mari Lekuonaren hitzak hartuta). Haur txiki-txikiengatik diogun hori, zortzi urtekoengatik ere baliozko den arren, adin honetan jolasetarako, olgetetarako ere erabiltzea egokia da.

KANDELARIO-LARIO			
Gaia	Ospakizunak	Jarduera	Kanta honetan /r/ dardarkari bakuna lario eta /rr/ dardarkari anitza aurkitzen ditugu: 1. Esan kantaren testua ahoz, «r» tipo biak intentsitate handiagoz markaturik. 2. Idatzi/esan hiru berba «r» mota bat edo bestea ipinita berbaren esangura aldatzen dana. Esate baterako: «Burdin gorria» eta «Burdin gorria».
<hr/> <hr/> <hr/>			

Urteko ospakizunen artean otsailaren 2an egiten da Kandelario. Eliza katolikoaren tradizioetik etorria izanik, aise ohartzen gara hizkuntzan utzi duen aztarnaz, herri jakintzako aberastasun bilakatzerara helduz.

Ariketetan hitz jokoak lantzeko-eta balio dezake.

5.1.4. Hamar urtekoentzat

LEHENENGOTXU HORI			
Gaia	Gorputz heziketa	Jarduera	Idatzi bost txartel txikitxotan -bost paper-txotan- hatzen izenak: TXIKIA, NAGIA, LUZEA, SENDOA, LODIA eta atxiki dago-kion atzamarrari.

Badakite haurrek mendi gailurrean direna eta hamar urte iraun duela igoerak. Klaseko jarduerak gero eta gehiago joko du froga eta azterketa publikoetara.

Aspaldian, haur txikiak zirela ere zenbatzen zizkieten hatzak eta behatzak. Ostean, bost urteko zirela, bazekiten hogeirainoko zenbakiak kontatzen. Horrek, ordea, ez zuen adierazten zenbaki bakoitzaren esanguraz jabetzen zirenik.

Une honetako kantaren bitartez, zenbakien eta hatzen froga egin daiteke, gorputz heziketa ere aintzat hartuz, eta kantaren leloa ikasle batek buruz esanik ikaskideak abesturik. Horrelaxe erabil litezke frogarako eskuko bost atzamarrak, bakoitza koplak baten, guztira hogeit hamar jakinda.

TXAKOLIN			
Gaia	Gorputz heziketa	Jarduera	Kantatu ahala, amamak egiten dituan keinu-mugimenduak imitatu eta Bernardari dinoan lekuan ikasgelako baten izena kantatu.
Ikaslearen jarduera: Txakolin, txakolin txakolinak on egin txakolinak emongo deutso _____zer egin txakolin txakolinak on egin.			

Panpinarekin zein eskuekin mugimenduak eginik kantatu eta «on egin» ikasiaz baliatzeko bidea eskaintzen du.

PERU ZAPATARIA			
Gaia	Jolasak-Olgetak	Jarduera	Erantzun
Peru zapatariak zer egin dau pekatu? _____ Nongo txakurra? _____			

Kanta berberaren sei aldaera, bertsio eskaintzen dira ikus-entzunekeo material honetan. Taldeko –binaka, launaka– erritmoa gorderik eta jolas erara kantatzeko egokia.

Gutziz aproposa da ahozko literaturaren aniztasuna batasunean azaltzeko, abesti beraren bertsio anitzak direla fenomeno naturala ulertarazteko.

Ez litzateke arrotza gertatuko irakasleak esatea herriko haur kanta zaharrak literatura idatzirako ere iturburu direla. Adibiderako, Lauaxetaren «Udabarriko autor-kuntza»: «Din-dan, balendan, / elizako atetan/ gizon bat dilindan»..

Hobbiak, denbora-pasak, emozioen heldutasuna dakarkio haurrari, batez ere gero berak intimitatean praktikatzen dituenean.

GABONETAN			
Gaia	Ospakizunak	Jarduera	Abestu, hutsunea dan lekuan herriaren/ ikastolaren/ikastetxearen izena ipinita:
Gabonetan oilarra pazkoetan bildotsa ahalegina egiteak ez dau guretzat esku motza hilerro meza osketan maiatzean Lagara _____ umetxuak ondo bizi gara.			

URTEBARRI			
Gaia	Ospakizunak	Jarduera	Urtebarri: osotu lerroak. Elantxobeko eskari kantan abestu eta ezer emoten ez badeutsue, zer esaten jake etxe horretako atsoari eta agureari?
_____ _____			

URTEBARRI			
Gaia	Ospakizunak	Jarduera	Erantzun: «Urte barri txarri belarri» nork emoten deutsa nori?

Urteko sasoiaren ospakizunak eskatzen dutenean abestekoak dira. Biak ere taldean kantatzeko aproposak, erraz-erraz eszenifika daitezkeenak –Elantxobeko «Urtebarri»esate baterako.

Ederto letorke azaltzea Gabonak, Urtebarri, Pazkoak noiz eta zelan ospatu ohi diren.

5.1.5. Hamaika urtekoentzat

AITITA DALA TUTULUNBERDE			
Gaia	Eremu semantikoak	Jarduera	Zeanuriko «Aitita dala tutulunberde» ikasi ostean, egin irudi bat non marraztuko dozun aitita zer hartuta eta zelan hartuta joan dan Bitoriara.

Aitaita-amamek ez dute inposatzen gurasoen adineko diren pertsonak –maisuek, maistrek, ertzainek, dendariak...– inposatzen duten beste. Horrexegatik mintza daitezke haurrek barruen dituzten zalantzei nahiz sentimenduei buruz.

Buruz ikasi ostean, kantaren argumentuaren eta gaiaren gainean mintza daitezke gelan ikasleak, baita idatzi ere.

HORRA HOR GOIKO			
Gaia	Eremu semantikoak	Jarduera	Ikasgelan: «Horra hor goiko» kantarako, begiratu entziklopedian irudia edo argazkia amilotxarena eta kukuarena. Etxean: Itaundu aitatzuri edo amatxuri zer gertatzen dan kukuaren eta amilotxaren artean nahiz kukuaren eta txindorraren artean udabarrian.

SANTA AGEDA (Orozko)			
Gaia	Eremu semantikoak	Jarduera	Santa Ageda eske-kopla ikasi eta kontatu irakasleari edo taldeko laguntxuari nor izan zan Santa Ageda eta zer gertatu jakon.

Horra hor goiko eta Santa Ageda –Orozkokoa–, ezin hobeto erabil daitezke berbalizaziorako. Faktorerik garrantzitsuenetariko bat hamaika urteko umeak besteak hobeto uler ditzan, pentsamenduak eta sentimenduak adierazteko duen gaitasun gero eta handiagoa da. Hamaika urtekoa hasi da gai izaten bere buruaz eta gertatzen zaionaz berba egiten.

Kanta bietan ere erabat interesgarria da argumentua neskantilak edo mutikoak azaltzea, berbaz adieraztera ematea. Kukuak amilotxaren habian jartzen dituela arrautzak eta horren inguruko gorabeherak jakingarriak dira kanta ulertzeko. Agata Deunaren istorioa ere kanpotik iritsia dugun arren, Euskal Herriko ondare kultural bilakatu dela azaltzea harira dator.

HAMABI APOSTOLUAK			
Gaia	Zenbakiak	Jarduera	Buruz ikasi eta hutsuneak bete zenbakiak ipiniz.
			<p style="text-align: center;">_____12_____ apostoluak _____ aingeruak _____ mandamentuak _____ ordenamentua _____ dira zerua _____ sakramentua _____ argilerua _____ Jesukristoren _____ llaga _____ _____ ebangelistia _____ _____ trinidadia _____ Erromako altarak _____ gure Jauna bera da _____ berak salbauko gaiozak.</p>

Zenbakiak eta alfabetoa direla jakinik gure ideien sekuentzia antolatzeko aurki-kuntzarik baliagarrienetarikoak, kanta honek ariketa aproposa dakarkio ikasleari ika-si ostean burua antola dezan.

Xabier Amurizak dioenez, testu honen azpian ipuin bat dago, deabruak San Mar-tini egin omen zion proba bat. Eta bai solemnitatea sortzen duela, bere egitura unifor-mea-eta errepikatuz! Zerbait izan behar, kondaira honen aldaerak oso ugariak baitira bazterretan, herriak maite izan duen seinale.

TXIKITXUA ZARA			
Gaia	Eremu semantikoak	Jarduera	Lau lerroko kopia honetan, zein hitz, aditz edo partikula erabiliko zeunke hirugarren lerroan silaba bat gehiago ipintzeko. Kontu-an hartu silaba batekoak izan behar dauala.
1. lerroan-	-----	8	
2. lerroan-	-----	8	
3. lerroan-	-----	7: + 1 =	-----
4. lerroan-	-----	8.	

Bigarren Hezkuntzara joango direnean, Lehen Hezkuntzan handienak izatetik txikienak izatera pasatuko dira. Goragoko mailetako ikasleak digante itxurako iku-siko dituzte. Errezeloz begiratuko diete irakasle diruditen azken kurtsoetako ika-sleei.

APALAZIO ZALDUNA			
Gaia	Ospakizunak	Jarduera	Gabon kopla honen amaieran erdaraz entzuten dozuna hemen euskaraz ipini dogu, baina hutsuneakaz zeuk bete dagizuzan:
Aquí estamos cuatro bailaremos dos una limosnita por amor de Dios.		Hemen gaituzue _____ dantzarako _____ Jaungoikoa arren limosnatxu _____	

Adin honetako ikasleek erabil dezakete kalendarioak eskatzen duenean kantatzeko eta orden koherentetik harago edo honago dauden kantetako atalak lotzeko. Edonola ere, testuaren edertasuna ulertzea garrantzitsua da.

LOGURA NAZ			
Gaia	Idazketa	Jarduera	Walt Disney pictures-ek baditu «El jorobado de Notre Dame», The hunchback of Notre Dame, Le bossu de Notre Dame izeneko marrazki bizidunak. Entzun kopla eta ipini euskaraz produkzio horren izenburua.

LOTXU ENGAINADORE			
Gaia	Idazketa	Jarduera	Ipini hiru izenlagun loa kalifikatzeko:
lotxu		_____ _____ _____	

UMEA NEGARREZ			
Gaia	Idazketa	Jarduera	Izenlagun bi erabiltzen ditu tabernan dagan aita kalifikatzeko. Idatzi egizuz biak
_____ _____			

Hamaika urteko mutilek eta neskek berba itsusi, zantarren zerrenda luzea ezagutzen dute. Jaurti ere erraz-erraz, bat-batean jaurtitzen dituzte. Kanta hauetan halako hitz esanguratsuak eskaintzen dira, berezko testuinguruan kokaturik. Emakumezkoa izan edo gizonezkoa, badute euren genero ukitua.

5.2. GAIAREN ARABERA

Prestatu ditugun ariketak gaien arabera sailkatuta ematen ditugu atal honetan. Au-
rreko sailkapenean agertu diren ariketez gain hemen aditza eta idazketa lantzeko bes-
te batzuk ere agertzen dira. Egin ditugun multzoak honako hauek dira: Irakurketa,
gorputz heziketa, eremu semantikoak, idazketa, zenbakiak, generoa, jolasak-olgetak,
ospakizunak eta aditz ariketak.

5.2.1. Irakurketa

A, E, I, O, U			
Adina	5	Jarduera	Abezedariora ikasi leiteke kantaren bitartez, abezeda- rioko letrak bosnaka taldekatuta.
A, be, ze, de, e/ efe, ge, hatxe, i, iota/ ka, ele, eme, ene, eñe/ o, pe, ku, erre, ese/ te, u, uve, uve bikoitza, ixa/ i grekoa, zeta.			

Ariketa aproposa da fonema guztiez jabetzeko. Berton bokalak baino ez ditu lan-
tzen, baina doinu bera erabilita bosnaka ahoska dezake alfabeto guztia: A, Be, Ze, De,
E, eta ostean beste bost. Efe, Ge, Atxe, I, Jota eta abar.

Ezin ahaztuko dugu adin honetan badirela oztopo dituzten fonemak, erdaldun fa-
milieta koentzat ergatiboak: Nik, eta gaur eguneko gehienentzat Oiloa.

KUKURRUKU			
Adina	5	Jarduera	Ikusi zenbat u letra dagozan kanta honetan eta bete hutsuneak.
- u - u - u - u zer behar - - - u - - - u - - bi eta - - - u.			

Laburrean abesti polita intonazioa ikasteko, entzuna eta idatzia bereizteko eta fo-
nemak lantzeko.

5.2.2. Gorputz heziketa

ASTOTXUA			
Adina	5	Jarduera	Hartu altzoan, magalean -baina berna gainean- panpi- na eta bideoko andrearen erara egin mugimenduak.

Jarduera hau egoki gerta liteke oso panpina altzoan, magalean harturik gauzatze-ko. Oraindik ez dira iritsi arauetan oinarritutako jokoetan parte hartzeko adinera. Gu-rago dute paperak –pertsoneien zereginak– errepresentatzea, batez ere, telebistako programarik estimatuenetan oinarrituta: ninja dordokak; Batman eta beste batzuk.

Bost urteko direla, oraindik dihardute euren trebetasun motoreak hobetzeko pro-zesuan, eta bete-betean murgildu ohi dira jarduera fisikoan.

TXAKUR HANDI			
Adina	5	Jarduera	Hemen bere, hartu altzoan ikasgelako laguntxu bat edo panpina eta bideoa amamaren araberrako mugimenduak egin.

TXALO PIN TXALO			
Adina	5	Jarduera	Irakasleak galdetu eta ikasleak erantzungo du.
Zeri begira dago katutxua?			

Jarduera honetan txaloak jotzen direla, bakarkako nahiz taldekako erritmoa lan daiteke.

Baserrietako abereak nekazariarentzat «Gure hurrengoak» dira, katutxua gure hurrekoa.

Katua kutuna da, baina ezustekoa ere bai. Katuak sagua dakarkigu gogora eta ipuin asko eta ez esaera gutxi: Gotzon Garatek dioskunez: «Saguen atzetik katua, nagusiaren atzetik txakurra».

ERAGIOZU ESKUTXUARI			
Adina	6	Jarduera	Lehenengo, bideoa jarri eta eskuei eragin erritmoaren arabera lehenik batari, ostean, besteari. Bigarren, doinua jarri eta ikasleak hamar hatzak erabiliz, silabak banan-banan markatzen direla eroan behar du erritmoa.

Jarduera honetan kanta ikasi eta eskutxoaz baliatzen ikasten da. Gorputz heziketan atal hau ederto erabiltzea lortu ohi dute. Elantxobeko bertsioa eta Amoroakoa bata besteagaz alderaturik ikastea komeni da.

Identitate sentimendua behar bestean eurenganatu ez duten hurrek, behar-beharrezko dute gurasoen, irakasleen laguntza, denari mugak jartzeko, direla arauak nahiz errimak.

TXINKIRRINKI SOINUA			
Adina	6	Jarduera	Irakasleak lerro inpareak kantatu eta ikasleak pareak edo ikasle batek inpareak eta beste batek pareak, el-karrizketa erara.
Txinkirrinki soinua			

zapatatxu barriak			

Oinetakoak lotzea, janztea, edo soingainekoa norberak bakarrik ipintzea, nagusi-en laguntza barik, sei urtekoaren independentziak eskatzen duen ordaina da. Oraindik gora gurasoek eta konpontzen zizkieten eguneroko beharrianak berak egin behar ditu, hauxe da-eta gurasoekiko harremanetan gertatzen zaion aldaketarik handiena.

Kanta ikasi ostean, bideoan azaltzen den erara erabil daiteke umea gora eta behe-ra edo umeak erabil dezake panpina; jarduera aproposa da, bestalde, zapatak lotzeari ekiteko ere.

ANDRAKILA MARDO			
Adina	8	Jarduera	Lehenengo txinboaren/kulunkaren erritmoan erabili panpina besartean eta gero, hutsuneak bete.
Mardoa, _____,			
_____, ondo apaindua.			

Ariketa da, panpina eskuetan, erritmoa gorderik egitekoa. Ezin ahantziko dugu esperientzia positiboak grabatuta geratzen direla geure izaeraren barruan. Semeak edo alabak, amak edo aitak zer egiten duten arretaz begiratu eta kopiatu egiten dute.

LEHENENGOTXU HORI			
Adina	10	Jarduera	Idatzi bost txartel txikitxutan -bost papertxutan-hatzen izenak: TXIKIA, NAGIA, LUZEA, SENDOA, LODIA eta atxiki dagokion atzamarrari.

Badakite hurrek mendi gailurrean direna eta hamar urte iraun duela igoerak. Klaseko jarduerak gero eta gehiago joko du froga eta azterketa publikoetara.

Aspaldian, haur txikiak zirela ere zenbatzen zizkieten hatzak eta behatzak. Ostean, bost urteko zirela, bazekiten hogeirainoko zenbakiak kontatzen. Horrek, ordea, ez zuen adierazten zenbaki bakoitzaren esanguraz jabetzen zirenik.

Une honetako kantaren bitartez, zenbakien eta hatzen froga egin daiteke, gorputz heziketa ere aintzat hartuz eta kantaren leloa ikasle batek buruz esanik eta ikaskideak

abesturik. Horrelaxe erabil litezke frogarako eskuko bost atzamarrak, bakoitza kopla baten, guztira hogeit hamar jakinda.

TXAKOLIN			
Adina	10	Jarduera	Kantatu ahala, amamak egiten dituan keinu-mugimenduak imitatu eta Bernardari dinoan lekuan ikasgelako baten izena kantatu.
Txakolin, txakolin txakolinak on egin txakolinak emongo deutsa _____zer egin txakolin txakolinak on egin.			

Panpinarekin zein eskuekin mugimenduak eginik kantatu eta «on egin» ikasiaz baliatzeko bidea eskaintzen du.

5.2.3. Eremu semantikoak

OBABATXUA II			
Adina	8	Jarduera	Ispasterreko amamak zergaitik dino:
«Ez egin lorik basoan»? _____			

OBABATXU TXINGORRINGO			
Adina	8	Jarduera	Zeanuriko amamak dino: «azagariak jango zaitu», baina
Zer zarelakoan? _____			

Testu oparoak dira ikasgelarako –nahiz gurasoentzako–. Eskaintzen direnetarik bat ikas daiteke –Ispasterrekoa esate baterako– eta gainontzekoakaz erkatu, bataren eta bestearen arteko desberdintasunekin batera zer duten oinarrian berdina ikusteko.

Horrez gainera loturetarako bidea eskaintzen du: Txano Gorritxoren ipuinarekin; basoak ematen duen itzaltasunarekin, basajaunarekin eta abar.

Zortzi urtekoek ahalegin handia egiten dute ondo bereiztu eta definitzeko zer den fantasia eta zer errealitatea.

AITITA DALA TUTULUNBERDE			
Adina	11	Jarduera	Zeanuriko «Aitita dala tutulunberde» ikasi ostean, egin irudi bat non marraztuko duzun aitita zer hartuta eta zelan hartuta joan dan Bitoriana.

Aitaita-amamek ez dute inposatzen gurasoen adineko diren pertsonen –maisuek, maistrek, ertzainek, dendariak...– inposatzen duten beste. Horrexegatik mintza daitezke hurrek barruen dituzten zalantzei nahiz sentimenduei buruz.

Buruz ikasi ostean, kantaren argumentuaren eta gaiaren gainean mintza daitezke gelan ikasleak, baita idatzi ere.

HORRA HOR GOIKO			
Adina	11	Jarduera	Ikasgelan: «Horra hor goiko» kantarako begiratu entziklopedian irudia edo argazkia amilotxarena eta kukuarena. Etxean: Itaundu aitaxuri edo amatxuri zer gertatzen dan kukuaren eta amilotxaren artean nahiz kukuaren eta txindorraren artean udabarrian.

SANTA AGEDA (Orozko)			
Adina	11	Jarduera	Santa Ageda eske-kopla ikasi eta kontatu irakasleari edo taldeko laguntxuari nor izan zan Santa Ageda eta zer gertatu jakon.

Horra hor goiko eta Santa Ageda –Orozkokoa–, ezin hobeto erabil daitezke berbalizatorako. Faktorerik garrantzitsuenetariko bat hamaika urteko umeari besteak hobeto ulertuz joan dadin laguntzen diona, pentsamenduak eta sentimenduak adierazteko duen gaitasun gero eta handiagoa da. Hamaika urtekoa hasi da gai izaten bere buruz eta gertatzen zaionaz berba egiten.

Kanta bietan ere erabat interesgarria da argumentua neskailak edo mutikoak azaltzea, berbaz adieraztera ematea. Kukuak amilotxaren habian jartzen dituela arrautzak eta horren inguruko gorabeherak jakingarriak dira kanta ulertzeko. Agata Deunaren istorioa ere kanpotik iritsia dugun arren, Euskal Herriko ondare kultural bilakatu dela azaltzea harira dator.

5.2.4. Idazketa

Idazketa lantzeko ariketak bost multzotan banatuta ematen ditugu: Orokorrak, berbak topatzekoak, kantua osatzekoak, ikusi eta idaztekoak eta, azkenik, entzun eta

idaztekoak. Atzeneko sailetan bideoa ikusita edo audio artxiboa entzunda kantuaren letra idazteko eskatzen da.

5.2.4.1. Orokorrak

ARRE-ARRE MANDAKO			
Adina	5	Jarduera	Ikasleak hutsunea izen birekin bete behar dau. Esate baterako, <i>Josu eta Nerentzako</i> :
<p>Arre-arre mandako bihar Tolosarako handik zer ekarriko zapata ta gerriko Norentzako?</p> <p>_____</p>			

Bost urteko direnean, umerik gehienek egin dute ahalegina euren izena eta lagun-
txoena idazten, hau da, idatzirako interesa piztu zaie.

Ariketa honetan nor bere izena eta adiskideren batena esan behar dutenez, idatzi
ere egin dezakete. Jakina, beti da lehenago kanta buruz ikastea. Bestalde, izena ga-
rrantzitsua da, zeozelan esateko pertsonaren identitatea erakusten baitu.

TXIKITXU POLIT HORI			
Adina	8	Jarduera	Jaso eskuak Mari Jaiaren moduan eta kontatu silabak atzamarrak erabilita:
<p>Txi-ki-txu po-lit ho-ri</p> <p>_____</p> <p>_____</p> <p>_____</p>			
Orain kantatu letra berbera «Maritxu nora zoaz koplaren musikaz».			

Ariketa egokia, hatzak erabilirik koplako silabak kontatzen saia daitezen nahiz
koplaren egituraz jabe daitezen.

ERREKA BAZTERREKO			
Adina	8	Jarduera	Azpian daukazun laukian, ezkerreko goiko kopla zelan kantatu azpian ipintzen da. Zuk idatzi «Erreka bazterreko» kopla hau eskuinean goian eta ipini azpian zelan kantatu daitekeen errepika eta guzti, ezkerrekoaren modura.
Ederrak bi balio		Erreka bazterreko	
Kopla	Ederrak bi balio onak hiru ta lau galanta izateak asko balio dau.	Kopla	
Kopla kantatua errepikarekin	Ederrak bi balio onak hiru ta lau ederrak bi balio onak hiru ta lau galanta izateak asko balio dau oi ai ene asko balio dau ederrak bi balio onak hiru ta lau.	Kopla kantatua errepikarekin	

Olerkiaren tasuna zertan datzan adierazteko aukerakoa. Aliterazioa ere bikain jorra daiteke.

«Arin-arin»a dantzatzeko erabiltzen dela jakiteaz gain, ikasi egin daiteke dantza hori.

5.2.4.2. *Berbak idaztekoak*

Errezitatuen bideoak ikusita edo audio fitxategiak entzunda, laukietan falta diren berbak idazteko eskatzen da ariketa hauetan.

KATALAMIXON
Katalamison Nondik etorri? _____ Zer ekarri? _____ eta ogia Non itxi? _____ Txakurrak eta _____ jan Txau!

ATXIA-MITXIA
Atxia-mitxia perolipan neure _____ errotan joan nintzan errotara topau neban _____ bat _____ neuntsan harri bat zelemina kanpa zelemina kanpa gari gorri-gorri bat!

BASOAN JAIO

Basoan jaio
_____ hazi
_____ etorri
eta _____ ikasi

MARITXU TAILETAKO

Maritxu tailetukoa
gona _____
_____ hagin zaharra
eta _____ barria

HAU ZANKO

Ai _____, ai manko
_____ beterik joan eta
gariz _____ baletor
torros tos tos
tos tos!

ARRAUTZENA

Honek arrautzatxua egin
honek _____
honek prestau
honek _____
eta honek _____

TATANA GOZOA

Tatana gozoa
Zer _____ dozu gaur?
Txitxi eta _____
Niri zergaitik emon ez?
Aitak eta _____ itxi ez
zapi, zapi!

BAT BATXI PARRAT

Bat, bat, Batxi parrat
Bi, bi, Batxi _____
Hiru, hiru, hiru _____
Lau, lau, sardina _____
Bost, bost, gure katuak _____
Sei, sei, nik ezin _____

NESKATO PISPOTA

Neskato pispota
_____ dozu kopeta
zure _____ jantziak
hiru _____ kortxeta

PUNTAN PUNTA BI

Puntan punta bi
eperdian _____ bi
eta _____ dira
eta ezin igarri

5.2.4.3. Kantua osotzekoak

Kantuak entzunda hutseneetan falta diren berbak idazteko eskatzen da ondoko ariketetan.

TXINKIRRINKI

Txinkirrinki _____
txinbilinerako
_____ barriak
udabarrirako

ZERUAN ZE BARRI

Lo lo _____
zeruan ze barri?
_____ barri onak
orain eta _____

TXALO PIN TXALO

Txalo pin txalo
_____ eta txalo
_____ mizpiruaren
ganean dago
_____ bego
bego badago
zapatatxu _____
begira _____

SANTA AGEDA

Bedeinkatia izan dedila
etxe _____ jentia
pobre eta humilde dabiltzanentzat
badute _____
Santa Martiri maitia
dago _____ betia
jaun zerukuak emon daiuela
_____ eta bakia

PERU ZAPATARIA

Din dan
nor hil da?
Peru _____
Zer egin dau pekatu?
Auzoko _____ urkatu
teila ganean sikatu
haren _____ koitaduak
_____ madai pagatu

OBA-OBA

Oba-oba
loaren _____
Santa Katineko
_____ gozoa
zakua sartu eta
_____ zuloa
handik _____ deu te
kadera motxoa
oba-oba

OBABATXUA

Ababatxua lo tirintaña
ez egin lorik _____
_____ batek jan ez zaitez
_____ zarelakoan

LOGURA NAZ

Logura naz eta lo egingo neuko
baneuka oherako _____
daukat _____ laguna baina
_____ lepo makurra

EGUEN ZURI
Etxeko _____ mondrongo hik ez don asko _____ hik emoten donanagaitik ez jonagu _____ beteko

HORRA HOR GOIKO
Horra hor goiko _____ baten _____ daukaz ume bi kukuak egin ta _____ jan hauxe be kukuaren _____ zan

5.2.5. Zenbakiak

ASTO BARRABANA			
Adina	6	Jarduera	Esan egizu zertzuk egiten daben multzoa. Zuk bi gehiago ipini:
Bikoteak: esku bi; arto-uruna; _____; Hirukoteak: hiru erregeak; triangelua; _____; Laukoteak: astoak lau hanka; lau koadroa; _____; Boskoteak: larrosatxuak bost orri; _____;			

Zenbakietarako jarduera egokiak atera daitezke abesti honetatik Sei urteko direnean, hurrek uler dezakete zenbakiak objektu multzoa errepresentatzen dutela. Baliteke 5^a eta 10^a ulerterrazak gertatzea, eskuko hatzak ere horrenbeste direlako. Hemen joera naturalari jarraituta ikas ditzakegu: Bikoteak: beso bi, esku bi, belarri bi; Hirukoteak: Hiru errege; hiru Jainko...; Laukoteak: Astoak lau hanka; laukiak lau alde, eta abar.

LEHENENGOTXU HORI			
Adina	10	Jarduera	Idatzi bost txartel txikitxutan -bost papertxutan- hatzen izenak: TXIKIA, NAGIA, LUZEA, SENDOA, LODIA eta atxiki dagokion atzamarrari.

Badakite hurrek mendi gailurrean direna eta hamar urte iraun duela igoerak. Klaseko jarduerak gero eta gehiago joko du froga eta azterketa publikoetara.

Aspaldian, haur txikiak zirela ere zenbatzen zizkieten hatzak eta behatzak. Ostean, bost urteko zirela, bazekiten hogeirainoko zenbakiak kontatzen. Horrek, ordea, ez zuen adierazten zenbaki bakoitzaren esanguraz jabetzen zirenik.

Une honetako kantaren bitartez, zenbakien eta hatzen froga egin daiteke, gorputz heziketa ere aintzat hartuz eta kantaren leloa ikasle batek buruz esanik ikaskideak abesturik. Horrelaxe erabil litezke frogarako eskuko bost atzamarrak, bakoitza koplaren baten, guztira hogeit hamar jakinda.

HAMABI APOSTOLUAK			
Adina	11	Jarduera	Buruz ikasi eta hutsuneak bete zenbakiak ipiniz.
<p style="text-align: center;"> _____ 12 _____ apostoluak _____ aingeruak _____ mandamentuak _____ ordenamentua _____ dira zerua _____ sakramentua _____ argilerua _____ Jesukristoren _____ llaga _____ _____ ebangelistia _____ _____ trinidadia _____ Erromako altarak _____ gure Jauna bera da _____ berak salbauko gaiozak. </p>			

Zenbakiak eta alfabetoa direla jakinik gure ideien sekuentzia antolatzeke aurki-kuntzarik baliagarrietarikoak, kanta honek ariketa aproposa dakarkio ikasleari bu-ruz ikasirik burua antola dezan.

5.2.6. Generoa

EGUEN ZURI			
Adina	8	Jarduera	Jo hiztegira, begiratu zer den mondrongo edo mon-dongo eta hemen idatzi.
Mondrongo: _____			

Neskak neska direla eta mutilak mutil direla da zortzi urterekin egindako aurki-kuntzetarik bat. Bataren eta bestearen izaera desberdintasunak aurkitu baino lehen, nork bere identitateaz egon behar du seguru.

Kantak ederto baten irakasten digu aditzak dituen maskulinorako eta femeninora-ko baliabideak –alegia hikako tratamendua– gizonetzkoen eta andrazkoen arteko ha-rremanetarako.

URTEBARRI			
Adina	10	Jarduera	Erantzun: «Urte barri txarri belarri» nork emoten deutsa nori?

Hamaika urteko mutilek eta neskek berba itsusi, zantarren zerrenda luzea ezagutzen dute. Jaurti ere erraz-erraz, bat-batean jaurtitzen dituzte. Kanta hauetan halako hitz esanguratsuak eskaintzen dira, berezko testuinguruan kokaturik. Emakumezkoa izan edo gizonezkoa, badute euren genero ukitua, Urtebarri Elantxobekoan ikusten denez.

5.2.7. Jolasak/Olgetak

LOA-LOA/OBABATXUA (I)			
Adina	8	Jarduera	Obabatxua ikasi eta erantzun:
Noz egingo dau lo umetxuak eta noz amamak?			

Panpinekin jokoetan ari direnean erabil daitekeen doinua edo etxean hurrek aitari eta amari irakastekoa, lotarakoan batera kanta dezaten. Antzera balio dezake panpinak lotan jartzeko-eta.

«Zuk eta biok» esamoldea irakasteko era eskaintzen du kantak.

OBA-OBA			
Adina	8	Jarduera	Kanta hau entzunik, idatzi antz-antzeko izenburua daukan euskal liburu famatu baten izena. Idazlea Bernardo Atxaga da:

Oba-oba hasiera eta amaierakoak biziarazten dio umetxo bati, adinekooi Birgiliok sujeri diezagukeen baino gehiago. (Juan Mari Lekuonaren hitzak hartuta). Haur txiki-txikientzat diogun hori, zortzi urtekoentzat ere baliozko den arren, adin honetan jolasetarako, olgetetarako ere erabiltzea egokia da.

PERU ZAPATARIA			
Adina	10	Jarduera	Erantzun
Peru zapatariak zer egin dau pekatu?			

Nongo txakurra?			

Kanta berberaren sei aldaera, bertsio eskaintzen dira ikus-entzunezko material honetan. Taldeko –binaka, launaka– erritmoa gorderik eta jolas erara kantatzeko egokia.

Gutziz aproposa da ahozko literaturaren aniztasuna batasunean azaltzeko, abesti beraren bertsio anitzak direla fenomeno naturala ulertarazteko.

Ez litzateke arrotza gertatuko irakasleak esatea herriko haur kanta zaharrak literatura idatzirako ere iturburu direla. Adibiderako, Lauaxetaren «Udabarriko autor-kuntza»: «Din-dan, balendan, / elizako atetan/ gizon bat dilindan»

Hobbiak, denbora-pasak, emozioen heldutasuna dakarkio haurrari, batez ere gero berak intimitatean praktikatzen dituenean.

5.2.8. Osparkizunak

ERREGENA			
Adina	5	Jarduera	Irakasleak galdetu eta ikasleak erantzun:
Zer egin eutsan Meltxorrek Gasparreri?			

Ohiturak ohitura, Olentzarorekin batera –Euskal Herriak European duen kokaguneagatik– erregeak ere urteko ospakizunen gurgpilean agertuko dira, Papa Noellen edo Santa Clausen inguruan direla. Eskolaren betekizuna, geuretik abiatuak gainontzekoak ere ezagutzea izango da.

Erregena izeneko abesti honi beste antzerako batzuk aldamenean jartzea ere egokia da.

HATOR-HATOR			
Adina	6	Jarduera	Ikasleak kantatu ahala antzezteko, batez bere, <i>eragiok mutil dinoanean eta txipli-txapla pun kantatzen danean.</i>

Gau luzeetako ospakizunetan sartzten dugu «Hator, hator» abestia. Ederto dator kanta hau danborrari eragiteko ariketarako nahiz erritmoaren arabera «txipli-txapla pun» antzezteko.

Irakasteko metodoak oso aldatuta daude. Gaurko eskolan, adin honetako haurrek gauzak eginez ikasten dute: pintatuz, ebakiz, irudiak, barrak eta ontziak erabilia kalkulatz.

KANDELARIO-LARIO			
Adina	8	Jarduera	<p>Kanta honetan /r/ dardarkari bakuna lario eta /rr/ dardarkari anitza aurkitzen ditugu:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Esan kantaren testua ahoz, «r» tipo biak intentsitate handiagoz markaturik. 2. Idatzi/esan hiru berba «r» mota bat edo bestea ipinita berbaren esangura aldatzen dana. Esate baterako: «Burdin gorria» eta «Burdin gorria».
<hr/> <hr/> <hr/>			

Urteko ospakizunen artean otsailaren 2an egiten da Kandelario. Eliza katolikoaren tradizioetik etorria izanik, aise ohartzen gara hizkuntzan utzi duen aztarnaz, herri jakintzako aberastasun bilakatzera helduz.

Ariketetan hitz jokoak lantzeko-eta balio dezake.

GABONETAN			
Adina	10	Jarduera	<p>Abestu, hutsunea dan lekuan herriaren/ikastolarren/ikastetxearen izena ipinita:</p>
<p style="text-align: center;"> Gabonetan oilarra pazkoetan bildotsa ahalegina egiteak ez dau guretzat esku motza hilerio meza osketan maiatzean Lagara _____ umetxuak ondo bizi gara. </p>			

URTEBARRI			
Adina	10	Jarduera	<p>Urtebarri: osotu lerroak. Elantxobeko eskari kantan abestu eta ezer emoten ez badeutsue, zer esaten jake etxe horretako atsoari eta agureari?</p>
<hr/> <hr/>			

URTEBARRI			
Adina	10	Jarduera	Erantzun: «Urte barri txarri belarri» nork emoten deutsa nori?

Urteko sasoiaren ospakizunak eskatzen dutenean abestekoak dira. Biak ere taldean kantatzeko proposak, erraz-erraz eszenifika daitezkeenak –Elantxobeko «Urtebarri» esate baterako.

Ederto letorke azaltzea Gabonak, Urtebarri, Pazkoak noiz eta zelan ospatu ohi diren.

APALAZIO ZALDUNA			
Adina	11	Jarduera	Gabon kopla honen amaieran erdaraz entzuten dozuna hemen euskaraz ipini dogu, baina hutsuneakaz zeuk bete dagizuzan:
Aquí estamos cuatro bailaremos dos una limosnita por amor de Dios.		Hemen gaituzue _____ dantzarako _____ Jaungoikoa arren limosnatxo _____	

Adin honetako ikasleek erabil dezakete kalendarioak eskatzen duenean kantatzeko eta orden koherentetik harago edo honago dauden kantetako atalak lotzeko. Edonola ere, testuaren edertasuna ulertzea garrantzitsua da.

5.2.9. Aditz ariketak

Lehenengo, irakurri aditz aldia, ostean, entzun kanta eta azpimarratu pertsona egokia.

A, E, I, O, U
DOT
DOK/NA
DAU
DOGU
DOZU
DOZUE
DABE

ANDRAKILA MARDO

NAU
 HAU
 DAU
 GAITU
 ZAITU
 ZAITUE
 DITU/DAUZ

ASTO BARRABANA

DAROAT
 DAROAK/DAROAN(A)
 DAROA
 DAROAGU
 DAROAZU
 DAROAZUE
 DAROE

BANEUKA
 BAHEUKA
 BALEUKA
 BAGEUNKA
 BAZEUKA
 BAZEUKIE
 BALEUKIE

NAROA
 HAROA
 DAROA
 GAROAZ
 ZAROAZ
 ZAROEZ
 DAROAZ

EGUEN ZURI

JOAT/JONAT
 DOK/DONA
 JOK/JONA
 JOAGU/JONAGU
 JUEK/JUEN(A)

ERREGENA

NATOR
 HATOR
 DATOR
 GATOZ
 ZATOZ
 ZATOZE
 DATOZ

NEUTSAN
 HEUTSAN
 EUTSAN
 GEUNTSAN
 ZEUNTSAN
 ZEUNTSIEN
 EUTSIEN

**APALAZIO ZALDUNA
(Orozko)**

DEUTSAT
DEUTSAK/DEUTSAN(A)
DEUTSA
DEUTSAGU
DEUTSAZU
DEUTSAZUE
DEUTSIE

DEUTSADAZ
DEUTSAZAK/DEUTSAZAN(A)
DEUTSAZ
DEUTSAGUZ
DEUTSAZUZ
DEUTSAZUEZ
DEUTSIEZ

**APALAZIO ZALDUNA
(Zeanuri)**

DEUSTE
DEUE/DEUNE
DEUTSIE
DEUSKUE
DEUTSUE
DEUTSUEE
DEUTSEE

DEUSTAZ
DEUAZ/DEUNAZ
DEUTSAZ
DEUSKUZ
DEUTSUZ
DEUTSUEZ
DEUTSEZ

DARABILT
DARABILK/DARABILN(A)
DARABIL
DARABILGU
DARABILZU
DARABILZUE
DARABILE

HATOR-HATOR

DAIDAN
DAIAN/DAINAN
DAIAN
DAIGUN
DAIZUN
DAIZUEN
DAIEN

**HORRA HOR GOIKO
(Orozko)**

DAUKAT
DAUKAK/DAUKAN(A)
DAUKA
DAUKAGU
DAUKAZU
DAUKAZUE
DAUKIE

**HORRA HOR GOIKO
(Ispaster)**

EGIN JOAT
EGIN DOK/EGIN DON(A)
EGIN JOK
EGIN JOAGU
EGIN JUEK

**HORRA HOR GOIKO
(Lekeitio)**

DITUT
DITUK/DITUN
DITU
DITUGU
DITUZU
DITUZUE
DITUE

LOGURA NAZ

BANEUKA
BAHEUKA
BALEUKA
BAGEUNKA
BAZEUNKA
BAZENUKIE
BALEUKIE

NEUKE
HEUKE
LEUKE
GAUNKE
ZEUNKE
ZEUNKIE
LEUKIE

OBABATXU (II)

NAIAN
HAIAN
DAIAN
GAIZAN
ZAIZAN
ZAIEZAN
DAIZAN

OBABATXU TXINGORRINGO

NAU
HAU
DAU
GAITU
ZAITU
ZAITUE
DITU

**SANTA AGEDA
(Elantxobe)**

DAIDAN
DAIAN/DAINAN
DAIAN
DAIGUN
DAIZUN
DAIZUEN
DAIEN

**SANTA AGEDA
(Ubidea)**

NABIL
HABIL
DABIL
GABILTZ
ZABILTZ
ZABILTZE
DABILTZ

NAGO
HAGO
DAGO
GAGOZ
ZAGOZ
ZAGOZE
DAGOZ

TXAKOLIN

DEUST
DEUA/DEUNA
DEUTSA
DEUSKU
DEUTSU
DEUTSUE
DEUTSE

TXALO PIN TXALO
NAGOAN HAGO BEGO/DAGOALA GAGOZAN ZAGOZ ZAGOZE BEGOZ/DAGOZALA

TXIKITXUA ZARA	
NAZ HAZ DA GARA ZARA ZARIE DIRA	HAUT DOT ZAITUT ZAITUET DITUT/DODAZ

URTEBARRI (Elantxobe)	
NATORTZU NATORKO NATORTZUE NATORKE	NAITEN HADI BEDI/DAITELA GAITEZAN ZAITEZ ZAITEZE BEITEZ/DAITEZALA

5.3. ERRITMOA

Atal honetan musikarekin, erritmoarekin, kantuekin eta errezitatuekin eurokin lotutako ariketak batzen ditugu. Ariketak ondoko multzoetan banatuta aurkezten ditugu: (1) entzun eta kantatu, (2) entzun eta aukeratu, (3) entzun eta jo, (4) kanta asmatu, (5) doinua asmatu eta (6) doinua aukeratu.

5.3.1. Entzun eta kantatu

Audio artxiboa entzun eta ostean norberak kantatzeko ariketa da. Beronen bidez kantak ikas daitezke.

5.3.2. Entzun eta aukeratu

Audio artxiboaren melodia entzun eta ostean norberak aukera ditzake ondo datozkion berbak. Kanta baten baino gehiagoren berbak izan daitezke.

5.3.3. Entzun eta jo

Atal honetako audio artxiboetan melodiak apur bat moldatuta aurkezten dira. Melodiok betiko kanta alda daitezkeela erakusten dute; era berean norberak jotzeko bali dezakete.

5.3.4. Kanta asmatu

Multzo honetako ariketetan aldezturik ematen diren lau berba erabilita kanta osoa osatu behar da: Eredutzat aurkeztu ditugunak honako hauek dira

1	txutxulunberde masustra aita gurea tabernan
---	--

6	zalduna eguna paluak gaztaina
---	--

2	mandako Tolosarako Iruñarako gerriko
---	---

7	Urtebarri belarri mailutxu hausi
---	---

3	mardo txorta apaindua moduan
---	---------------------------------------

8	andra mondrongo emongo poltsa
---	--

4	harextitxu kukuak amilotxak zoritxarra
---	---

9	zapaterua koipetsu garbitu sikatu
---	--

5	txikia nagia luzea sendoa
---	------------------------------------

10	txalo katutxua bego dago
----	-----------------------------------

5.3.5. Doinua asmatu

Kanta baten letra emanda ikasleari eskatzen zaio ondoen dagokion doinua eman diezaion. Adibidetzat honako hauek hartu dira:

AITITA DALA

Aitita dala txutxulunberde
amama dala masustra
aita gurea tabernan da ta
amamatxuri emoten

ARRE-ARRE

Arre-arre mandako
bihar Durangorako
handik zer ekarriko
zapata ta gerriko

ASTOTXUA

Astotxua txikitxua
horren belekua
okerreko bidetik
zek ete darua

EGUEN ZURI

Etxeko andra mondrongo
hik ez don asko emongo
hik emoten donanagaitik
ez jonagu poltsarik beteko

APALAZIOA

Apalazio zalduna
hiru erregeen eguna
hiru erregeek agindu deuskue
limosnatxu bat behar dogula
zotzak eta paluak
Martin kintzen kontuak
Martineri eroan deutzazala
hiru oilanda katuak
haren hazurrak batu ezinda
hark darabiltzan saltoak
tinbilintaña-tinbilintaña
hiru intxaur eta lau gaztaina

HATOR-HATOR

Hator hator mutil etxera
gaztaina zimelak jatera
gabon gaba ospatuteko
aitaren eta amaren aurrean
ikusiko dok aita barreka
ama be poz atseginez
eragiok mutil
aurreko tanbolin horri
gaztainak erre artean
gaztainak erre artean
txipli txapla pun
gabon gaba pozik
igaro daigun

HORRA HOR GOIKO

Horra hor goiko
harextitxu baten
kukuak daukaz ume bi
kukuak egin ta
amilotxak jan
haxe be kukuaren zoritxarra zan

KANDELARIO

Kandelario lario
hatxari ura dario
erroteari uruna
haxe da guk behar doguna

LOTXU ENGAINADOREA

Lotxu engainadore
faltso traidorea
arren engaina eizu
umea geurea
arren engaina eizu
umea geurea

OBABATXUA

Obabatxua lo ta lo
zuk orain eta nik gero
zeuk gura dozun
orduren baten
biok egingo dogu
lo ta lo

5.3.6. Doinua aukeratu

Kanta baten berbak irakurri ondoren, doinu bi entzun behar dira eta berbeekin ondoen egokitzen dena aukeratu behar da.

ZERUAN ZE BARRI

Zeruan ze barri?
zeruan barri onak
orain eta beti

TXIKITXU POLIT HORI

Txikitxu polit hori
zelan zara bizi?
joan dan aspaldian
ez zaitut ikusi

TXALO PIN TXALO

Txalo pin txalo
txalo eta txalo
katutxua mizpiruaren
ganean dago
badago bego
bego badago
zapatatxu barrien
begira dago

TXAKUR HANDI

Txakur handi txaketa
txakur handiena
txakur handi txaketa
buelta morena

PERU ZAPATARIA

Din dan
nor hil da?
Peru zapataria
Zer egin dau pekatu?
Auzoko txakurra urkatu
teila ganean sikatu
haren emazte koitaduak
hamar madai pagatu

OINA-OINA

Oina oina
Txiri txiri
Aita legez
Ama legez

KUKURRUKU

Kukurruku zer behar dozu
arrautza bi eta koipetsu

OBABATXU

Obabatxua txingorringorri
ez egin lorik basoan
azagariak jango zaitu ba
oiloa zaralakoan
azagariak jango zaitu ba
oiloa zaralakoan

HORRA HOR

Horra hor goiko harextitxu baten
kukuak daukaz ume bi
kukuak egin ta amilotxak jan
hauxe be kukuaren zoritxarra zan

ERAGIOZU

Eragiozu eskutxuari
behin batera
ta gero bestera

6.

BIBLIOGRAFIA

- AMURIZA, X. (1995): *Bizkaiko bertsogintza. Izengabeak*. Bilbo. Bizkaiko Bertsolari Elkarte.
- BARDLEY, Y. (1998): *Comprendiendo a tu hijo de 10 años*. Paidós. Barcelona.
- DIAZ DE ZERIO, M. R. (2003): *Euskal kanta zahar batzuk eskolarako*. Nafarroako Gobernua. Iruñea.
- GARATE, G. (1998): *Atsotitzak*. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.
- HOLDITCH, L. (2002): *Comprendiendo a tu hijo de 5 años*. Paidós. Barcelona.
- KALTZAKORTA, X. (1995): «Kaltzakorta Saila», in *Bizkaiko bertsogintza. Izengabeak*. Bilbo. Bizkaiko Bertsolari Elkarte.
- LEKUONA, J. M. (2002): «1977: «Umeen kantak», in *Euskera agerkaria*. 2002, 2. 47. Liburukia (2. aldia).
- MILLER, L. (1997): *Comprendiendo a tu hijo de 8 años*. Paidós. Barcelona.
- ORFORD, E. (1998): *Comprendiendo a tu hijo de 11 años*. Paidós. Barcelona.
- SIGÜAN, M. *Bilingüismo y diglosia. Lenguas en contacto. La normalización lingüística*.
- SUAREZ, P. (2001): *Desarrollo del lenguaje oral*. Fundei. Madrid.
- STEINER, D. (1997): *Comprendiendo a tu hijo de 6 años*. Paidós. Barcelona.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



Bizkaiko Foru
Aldundia

Diputación Foral
de Bizkaia



mendebal
kultur alkart



Bizkaian zehar kantetan
EK15020253

ISBN 84-457-2



9 788445 72

Salneurria: 1,50 €

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco